



# Inauteriak eta kinto!

>>7-9

**GUaiXE.eus**

## Altsasurako suhiltzaile eta foruzain gehiago eskatu dituzte

M<sup>a</sup> Jose Beaumont kontseilaria asteartean bisitan izan zen eta langile gehiagoren premia zutela jakinarazi zioten >>>3

## Altsasuko Udala eta Nafarroako Gobernua udaltzaingoaz hizketan

Plantilla eskasa du eta handitzeko deialdia errekurrituta dago. Konponbidea aztertzen ari dira aldeak >>>4

## Autoak harrapatuta gazte arbizuarra hil zen

Auto gidariak ihes egin zuen >>>5



**Bakaikun herri galdeketa garagarrilaren 19rako** >>>5



**Aritz Ganboa eta Askapena absolbituak izan dira** >>>5



**Indar Gorriko bi altsasuar atxilotuak eta auzipetuak** >>>6



**Etxarriko abesbatza La Pamplonesarekin Iruñean** >>>15



**Iker Irigoien 2. Euskal Herriko Igeriketa txapelketan** >>>12

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.  
info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**Eider Muñoa Goikoetxea**  
Zorionak pixpirita!!  
5 urte zurekin eta zure nebekin. Asko maite zaituztegu guztiok!!!!



**ZORIONAK BIHOTZI!**  
Zu ere zahartzen ari zara, eta gu, zure ondoan momentu horiek konpartitzeko prest. Egun ona izan ma-jetona. Lagunak!!



**Eneko**  
Gui itxeko kirolaiek 10 URTE!!! Eman bostekoa bi aldiz!! Egun ona pasa. Asko maite zaitugu.

## otsailak

# 5-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Katez, Skarmentu eta Desperdizio.** Otsailaren 5ean, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

**Oihan Vega.** Otsailaren 5ean, ostiralean, 23:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

**Txarros Txilapastrosos.** Otsailaren 6an, larunbatean, 19:30ean Olatzagutiko Clinker Jatetxean.

**Iker Allo, DonJon, UnaiKox & Krashtek, AseptikNoise, Ander Garaia, Mike Villas.** Otsailaren 6an, larunbatean, 22:30etik aurrera Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

### Magia

**El libro mágico.** Otsailaren 7an, igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Oliver magoa.**

### Zinema

**El desafío.** Otsailaren 5ean, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 7an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Joy.** Otsailaren 4an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Txurruko punta.** Otsailaren 7an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 46 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

### Erakusketak

**1991ko kintoen argazkiak.** Otsailaren 5etik 8ra arte, 19:30etik 21:30era, Altsasuko Gure Etxean.

**Altsasuko inauteriak.** Otsailaren 2tik 11ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Gure inauteriak ezagutzen.** Otsailaren 6an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Siriako gerra, errefuxiatuak eta harrera**



Skarmentu musika taldea.

**hiriak.** Otsailaren 10ean, asteazkenean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean.

### Bertsolaritza

**Bardoak: Einnekin & Barakina.** Otsailaren 6an, larunbatean, 18:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

### Tailerrak

**Sukaldaritza+afaria.** Otsailaren 6an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## » Arbizu

# Borden ibilbideko seinaleztapena erreparasatzen



Ingurumen Batzordeak deialdi irekia egin zien herritarrei larunbate-rako: borden ibilbideko pintura seinaleztapena berritzea. Dozena bat arbizuarrek erantzun zioten deialdiari. Arbizuko plazatik Aralar alderantz 9:00etan abiatu ziren. Behin basoan hiru taldetan banatu ziren eta talde bakoitzak borden ibilbideko zati bana-ko pintura seinaleztapena erreparatu zuen. Basoan lanean, baita baso-

az gozatzen eman zuten goiza.

Eguraldiak ez zien lagundu eta ez zituzten pintura seinale guztiak margotu. Ingurumen Batzordeak falta diren seinaleak margotzeko beste deialdi bat egingen du aurrerago. Hala ere, argitu digute urtero ez dela seinaleztapena erreparasatzea beharko. Bestalde, batzordekideen asmoa da urtean barna deialdi gehiago egitea, jendeak basoa ezagutu eta hartaz gozatzeko.

## SAKANA

# Muslariak enbidoka

Euskal Herriko mus txapelketako herrietako kanporaketak jokatzeko segitzen dute. Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. Mikel Ollok eta Txutxur-rinek finalean Peio Martinez de Eulateri eta Ekhiotz Lakastari irabazi zieten. Kantsolazio finalean, berriz, Patxi Galartzak eta Asier Galartzak osatutako bikoteak Zapa Iturriotzi eta Koldo Erbitiri irabazi zieten. Muslari zordiarren artean Jose Mari Ruiz de

Luzuriaga eta Gerardo Mendia izan ziren Nafarroako finalerako txartela eskuratu zutenak.

Bestalde, Etxarri Aranazko kanporaketan zazpi bikote neurtu ziren ilbeltzaren 23an. Iratiz Goñik eta Koldo Barandallak osatutako bikotea izan zen onena, finalean Oier Huitzi eta Xabi Agirre gazteei garaituz. Irabazleak Nafarroako finalerako sailkatu dira.

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Etxarriko abesbatzak La Pamploñesarekin emango duen kontzertuaz azalpenak
- Altsasuko inauteri erakusketa
- Etxarri Aranazko kintoak

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

## SAKANA

# Suhiltzaileek eta foruzainek Beaumonti lankide gehiago eskatu dizkiote

Langile premia guztiz aseko ez duen lan eskaintza publikoa deitu bitartean Iruñeko enpresen errefortzuak izan daitezke konponbidea

Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia kontseilari M<sup>a</sup> Jose Beaumont Altsasun egon zen astearte arratsalde-iluntzean. Nafarroako suhiltzaile parke eta Foruzaingoaren polizia etxeetan barne egiten ari den bilera errondaren barruan kokatzen da. Beaumontekin batera, Barneko zuzendari nagusi Agustin Gastaminza, Foruzaingoaren buru Torcuato Muñoz eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendari Victor Rubio izan ziren.

Beaumontek azaldu zigunez, "hasieratik garbi nuen egin beharra nuela. Topatu nuen dokumentazio guztia irakurtzeari eta nik barne zuzendari nagusi eta Foruzaingo eta suhiltzailetako zerbitzu buruetarako aukeratu nituenak esaten zidatenari entzuten utzi gabe, ez da gauza bera zuri gauzak kontatzea edo jendea zuzenean entzutea. Nik jendea zuzenean ezagutu nahi nuen. Zuzenean haien arazoak berri izan nahi nuen. Aldi berean, niezagutunazatela nahi dut. Argi utzi dugu haulehen hartu-emaerako erronda dela".

Altsasun lehenik suhiltzaileen parkean izan ziren eta, ondoren, polizia-etxean. Bateko eta beste kideei garaiz jakinarazi zitzaizkien Beaumont kontseilaria eta bere lantaldea noiz etorriko ziren bisitan. Beaumontek jakinarazi duenez, "guk ez dugu inolako baldintzaririk jarri. Bisitak antolatzen genituen eta toki guztietan eguneko operatiboan zeudenak eta lanean ez zeudenak ere etorri dira". Bilerekin "oso pozik" zegoen Beaumont: "jendeak luze eta zabal azaldu ahal izan dituzte sufritzen eta pairatzen ari diren arazoak, zuzenean". Entzundakoak, lantaldearekin, "Nafarroako larrialdiek, suhiltzaileak eta foruzaingoak, dituzten premien inguruan gobernuari planteamen-

du zuzenagoak eta sinesgarriagoak egiten laguntzen digu".

## Eskaera eta konponbideak

Altsasuko foruzainek eta suhiltzaileek Beaumonti langile gehiago izatea eskatu dizkiote. "Bi kolektibo-oneskaera hori konstante bat da. Baina Altsasun, agian, intentsitate gehiagorekin. Lurralde handia hartzen dute eta langile premia handia dago. Lan eskaintza publikoari itxaron gabe konponbideren bat bilatu behar dugu". Aurtengo konponbidea Iruñetik etorritako errefortzuak izan daitezkeela aipatu digu kontseilariak.

Beaumontek azaldu zuenez, lan eskaintza publikoa deitzeko asmoa dute, "baina aurtengo deialdian sartu ahalko dugun foruzain eta suhiltzaile plaza kopurua ez dugu zehaztu". Estatuak deialdia ez errekurrizteko, bermeekin eta segurtasunarekin egiteko, Nafarroako Gobernuak estatuarekin plaza kopurua zehaztu beharra du. Aurreko gobernuaren plantilla dekretua errekurriratu zuten eta halakorik errepikatzea ez dute nahi. "Nahikogunke, baina, horregatik ezin izanen dira departamentu guztien eta nire menpeko bi kolektibo hauen beharrik bete ahal izanen. Denak entzunez, sindikatuak barne, ahalik eta gehien asmatzen saiatu behar dugu, lan eskaintza deialdia zehazteko".

Horrek aurtengo arazoak ez dituela konponduko argi du kontseilariak, lan eskaintza eginda ere, hautatutako pertsonak 2017ra arte ezin izanen dutelako lanean hasi. Horregatik, jendearekin aurtengo bestelako konponbideetan pentsatzen ari dira.

## Kamineroen etxeak

Beaumontek Guaixeren bidez jakin zuen kamineroen etxeak izandako bi etxebizitza bloke hutsik daudela eta Altsasuko Udalak aurretik han etxegabekoen aterpea kokatzeko eskaera egin izan duela. Gobernuan gaiaz hitz egiten dutela gazi-gatu zuen.



"Ikasturtearen orduen %40a proiektuei dagokie"

Adrian Senar Oyarbide altsasuarra Energiaren Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Orona Ideo gunean, Hernanin. Elkarrizketa honetan azaldu digu nolakoak diren ikasketak eta zeintzuk diren unibertsitate honetako ezaugarri nagusiak.



Adrian ezkerretik hirugarrena da.

**Zergatik aukeratu zenuen Energiaren ingeniaritza? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Betidanik iruditu zait interesgarria energia berriztagarrien arloa; gainera etorkizunera begira sektore honetan lan aukera ugari egongo dela uste dut. Mondragon Unibertsitateko metodologia izan zen gehien erakarri ninduen, proiektuetan oinarrituriko ikasketa, hain zuzen. Enpresaren munduarekin daukan harreman estua ere kontuan hartu beharrekoa izan zen.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Bikaina. Klase-kideen artean dagoen giroa paregabea da eta ikasketei dagokienez ezin naiz kexatu. Gustuko duzuna ikasten duzunean ikasketak arinagoak

bihurtzen dira. Hala ere, gogoz lan egin behar izan dut.

**Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?**

Lehen esan bezala, MUra etortzera bultzatu ninduen bere metodologia izan zen. Sei hilabete bakoitzaren amaieran, klasean ikasitakoa praktikan jartzen da taldeka, proiektu baten bidez. Bertan, teorian agertzen ez diren arazo ezberdinak ikusi eta hauei irtenbidea bilatzen ikasi egiten da. Bai, alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio. Esaterako, aurtengo ikasturtearen orduen %40a proiektuari dagokio

**MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Gure campusa oso berria denez, instalazioak punta puntakoak dira eta leku ugari dago ikasi ahal izateko. Campus berria izateak eta oraindik ikasle asko ez izateak bere alde txarrak ere baditu, izan ere antolatzen diren ekintza gehienak Arrasateko campusari begira egiten dira oraindik, baina espero dugu hemendik gutxira hemen ere gero eta mugimendu gehiago egotea.

**Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Lehendabizi gradua bukatu eta gero etorriko dira etorri beharrekoak. Oraingo urte eta erdi geratzen zait eta azkeneko urtea atzerrian ikastea gustatuko litzaidake. Bukatu eta gero egingo dudana oraindik erabaki gabe daukat, baliteke ikasketekin jarraitzea master modukoren bat eginaz.

# sakanerria >>



Aingeru Mikeo

astekoa

## Afrikatik gutuna

Angela Merkel Europako Bataunaren Presidente andregorenari eta europar herritarrei:

Adanna Kwei naiz. Nire izek 'aita maitagarriaren alaba' esan nahi du. 42 urte ditut eta Ghanako Ashanti eskualdeko Kumasi hirian bizi naiz. Nire semea Ahlam zen. Bere izenak 'utopiazko ametsa' esan nahi du. 22 urte zituen eta altua, bizkorra, eta batez ere, alaia eta utopiaren ameslaria zen, bere izenaren esanahia bezalakoa. Kumasiko Unibertsitatean nekazaritzaren teknologia ikasizuen. Baina, zorigaitzez, Siziako parean hondoratutako itsasontzitik desagertutako 700 lagun horietako bat zen.

Betidanik, bere ametsa Europan joatea izan zen, duintasunaren bila, hemen, itxaropenarentzat zirrikiturik ez dagoelako. Orain, inoiz baino gehiago, esklabutza eta kolonialismo berria jasan behar dugu. Europarrek Afrika harpilatzen segitzen dute: meategi hilgarriak ustiatzen, gerra ankerak xaxatzen, nekazariak lurgabekten, baso tropikalak mortutzen, eta landak, ibaiak eta itsasoa kutsatzen. Horregatik, ghanatarrontzat eta oro har afrikarrentzat etorkizuna hilik dago; ordea, Europa aberatsa da, neurri handi batean Afrika txiroa delako.

Jakin badakit afrikar etorkinen "arazoa" saihesteko hesien eraikitzea eta polizia-presioa handitzea beste burubiderik ez duzula. Baina, migratzeko erabakia irmoa da. Datozen egunetan abiatuko naiz bidaiari, hilen munduan egonik ere, Ahlam semeak nire begiez lurralde hura ikus dezan, eta, bide batez, Afrikarentzat itxaropenezko etorkizuna aldarrikatzera. (Adanna Kwei / Kumasi, data)

Datondoa: gutun hau Almeriako itsasertzean erreskatatutako edozein andrezkok egina izan liteke.

>> Altsasu

# Udaltzaingoaren langile faltaren arazoarendako konponbidea bilatu nahian

Altsasuko Udalak, Udaltzaingoa indartzeko asmoz, hiru lanposturen deialdia egin zuen duela urte bat, baina gobernuak errekurritu eta deialdia geldiarazi zuten. Udalak, beraz, ezin ditu lanpostu berriak sortu. Horrek udal polizia "agentekopuru eskasa" izatea ekarri du, Altsasuko alkate Javier Ollokesanduezen. Gauregun bina agentek eta laguntzailek osatzen dute Altsasuko Udaltzaingoa. Haiak astelehenetik ostegunera, goizez eta arratsaldean, aritzen dira lanean eta ostiraletik domekara, normalean, soilik goizez.

Udaltzaingoaren agente faltaren gaia Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia kontseilari M<sup>a</sup> Jose Beaumontekin aztertu zuen Ollok ilbeltzaren 22an. "Herritarren arazoekiko gertutasunagatik Udaltzaingoa egiten duen lan garrantzitsua" azpimarratu du alkateak.

Beaumontek Altsasuko Udaltzaingoaren egoeraren berri badu: "udaletik gau askotan Foruzaingoaren presentzia eskatzen da udaltzainik ez dagoelako. Eta batzutan egunez ere, udaltzainak bi direlako. Zangozan antzeko arazoa dute". Kontseilariak gai hori marko orokorrako batean landuko dutela jakinarazi du.

2017ko apirilaren aurretik Nafarroako Parlamentuan tokiko polizia lege proiektua aurkeztu behar dute. Departamentuan lantzen ari

### 2015eko datuak

249 salaketa oinarri informatikoan.  
Herritarren 1993 dei jaso ditu.  
Arlo sozio-kulturaleko 89 probatan izan zen.  
Trafikoari lotutako 395 gaitan aritu da.  
106tan animaliekin zerikusia duten gaitan aritu da.  
Familia edo auzotarren arteko arazoetan 474 kasutan parte hartu du.  
23 trafiko istripuetan izan da.  
Lapurreta, galtze, jasotze edo jabetzaren kontrako kalteengatik 186 salaketa.  
Zaratek eragindako kexengatik 11 sonometria egin ditu.  
Galdutako 117 objektu bueltatu dizkie jabeei.

dira, baina udaltzaingoa duten udal guztietako alkateekin bilera egin nahi du Beaumontek, "legea egiteko lantalde bat sortu eta koordinatzeko, denon onurarako izateko". Udalek interes kontrajarririk dituztela azaldu digu kontseilariak: "batzuk udaltzainak Foruzaingoan sartzea nahi dute eta, beste batzuk, udaltzain gehiago eskatzen dituzte; gelditutako oposizioak daude". Hilaren akaberan edo martxoaren hasieran litzateke.



Udaltzainen ibilgailua udaletxe parean.

### Aurtengo egitekoak

Ollok jakinarazi duenez, Udaltzaingoaren aurtengo egiteko nabarmenenak honakoak izanen dira: pasabideen kudeaketa eta kontrola, eta dagokionean ibilgailua erretiratzea; azokaren kudeaketa eta kontrola; SOS Nafarroarekin eta beste erakundeekin elkarlana; galdutako eta utzitako animaliak jaso, zaindu eta ematea; trafikoa kudeatzea ikastetxeen irteeretan, kirol probetan, kultura ekitaldietan, kon-

tzentrazioetan...; industrialdeen eta aldirietako auzoen kontrola; udal ordenantzen betetzea bermatu; galdutako objektuen kudeaketa eta kontrola; ezgaitasun, txakurren eta pistetako txartelen kudeaketa eta kontrola; osasun etxearren kontrola eta zaintzako medikuari eta erizainari laguntzea; trafiko seinalatzenaren antolakuntza eta kalteen kontrola eta sonometria zerbitzua, alkoholemia, lehen arretak, kaletik ibilgailuak kentzea eta dokumentazioa jasotzea.

### SAKANA

## Eskola-kontzentrazioendako diru-laguntzak

Herrikoez aparte beste herri batzuetako ikasleak hartzen dituzten eskola publiko batzuk eskola-kontzentrazio direlako. Hezkuntza Departamentuak aparteko diru-laguntza ematen die udalei.

Diru-laguntzak	Udala	Ikasleak	Laguntza
Irurtzun		204	32.706,72
Etxarri Aranatz		73	11.703,88
Olatzagutia		5	801,64
<b>Guztira</b>		<b>282</b>	<b>45.212,24</b>

>>

## Enneco, eragileei aurkeztuta

Sakanako hainbat arlotako eragile-en 50 bat ordezkari Enneco, haritzaren memoria egitasmoaren aurkezpenaren izan ziren ostegunean. Sakanako hainbat udaletako eta elkartetako ordezkariak, garapen agentziak, herri mugimenduak, alderdi politikoak, sindikatuak eta turismo batzordeko kideak izan ziren. Etxarri Aranatz egindako aurkezpenaren Enneco proiektuaren urratsen aurkezpena eta egitasmoaren interesa eta elkar-tasuna erakutsi dute.

>> Bakaiku

## Frontoiko lanak despedituta

2015eko haizete batek frontoiko sabai aizunean kalteak eragin zituen, plaketako bat erori egin zen. Hura konpontzen eman dute pasa den astea udaleko hautetsiek eta bakaikuarrek ere. Horretarako obretako aldaziozko egitura handia jarri zuten kantxan. Bestalde, piloten eusteko sarea eta argi foku bat konpondu dituzte. Lanengatik udalak 2.400€ inguruko inbertsioa egin du. Udala seguruarekin harremanetan dago bere gain har dezan konponketaren kostua.

>> Altsasu

## Geroa Baik panelen kontrako ekintzak gaitzetsi ditu

Altsasuko Udalak garbitasun bertikalari buruzko mozioa onartu eta hana ipatzen ziren informazio-panelak joan den urteko azken astean jarri ziren. Haietako bat lurrean agertu zen eta beste bat oinarritik hautsi zuten aurreko astean. Altsasuko Geroa Baik informazio-panelen kontrako ekintzei "gaitzespen osoa" azaldu die. "Ekintza horien aurrean tinko jokatuko dugu, Altsasu hobe bat eraikitzea gure helburu izanda".

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea  
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

BAZKIDEAK 

 EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hezkuntza Politikako Salburordetza

## » Bakaiku

# Herri galdeketa garagarrilaren 19an izanen da

Bakaikuko Gure Esku Dago-k deituta larunbatean 60 bat bakaikuar elkartu ziren batzarrean eta herrian galdeketa antolatzea erabaki zuten. Dagoeneko lantalde bat lanean dago, bakaikuarrarekin batera galdeketa galdera eta metodologia adosteko. "Gure irekiak sortuko ditugu, bakaikuarrak parte hartzeko".

Galdeketa ikur gisa herri gainean, Urbanan, dagoen Hiru haitzeta hartu dute. Herriaren sinboloa dena galdeketa leloa ere izanen da: gure h(a)itzak. "Gure eta hitzak/haitzak hitz-jokoaren bidez, gure herriaren nortasunarekin lotzen dugu galdeketa, era berean, haitz horien gerizpea irizti anitzen topaleku bilakatuz".

Garagarrilaren 19an Bakaikuz aparte Euskal Herriko beste 23 herritan galdeketa egingen dituz-

te: Goierriko 22tan eta Diman. Aste bat lehenago Azpeitian egingen dute. 2014ko apirilaren 13an etxarriarrek egin zuten aurreneko herri galdeketa. *Euskal Herri independente baten herritarra izan nahi duzu?* galderari %94k baiezkoa erantzun zion. Parte hartzea %41ekoa izan zen.

## 130 sinadura

Bakaikuko erroldan 290 pertsonadaude. Herri galdeketa alde sinadurak biltzen aritu dira azken asteetan eta 130 babes jasotuz dagoeneko. "Babesnitza" dela gaztigatu dute. "Bilketa ez da bukatu eta sinadurak oporua hantitzea da gure helburua".



Batzarra egin ondoren bakaikuarrak herri galdeketa berri eman zuten. UTZITAKOIA

## » Etxarri Aranatz

## Gazte arbizuerra autoak harrapatuta hilda

Auto gidariak ezbeharraren lekutik ihes egin zuen

SOS Nafarroak igandean, 6:00ak aldera, jaso zuen deia: Etxarri, Eragan, errepidean auto batek harrapatuta eta hildako baten gorpua zegoen. A.J.R. 19 urteko gazte arbizuerra zen hildakoa. Etxarriko kinto ospakizunetatik etxera bueltan oinez zihoazen beste gazte arbizuerra batzuen deia zen. Hildakoa ordu bat lehenago Etxarri zegoen.

Eragara joan zen Etxarri Aranzko osasun etxeko medikuak heriotza ziurtatu zuen. Gorpua ambulanzian Lege-Medikuntzako Nafarroako Institutura eraman zuten, autopsia egiteko. Jendetza hunkituak gaztea asteartean agurtu zuen.

Etxarri Aranzko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek gertatutakoa larria zela eta argitzea espero zuela adierazi zuen. Familiari elkartasuna adierazi zion, Juan Antonio Extre-



mera PPko zinegotziak bezala.

## 112

Ezbeharraren inguruko argibideen bat duenak SOS-Nafarroaren telefonora, 112ra, hots egiteko deia egin du Foruzaingoak. Istripuko autoa zein izan zen identifikatzeko zuzeneko lekukorik ez dagoela eta inguruan kamerarik ez dagoela eta inguruan kamerarik ez dagoela gaztigatu du Foruzaingoak, "horregatik, edozein arrastok gertaerak argitzen lagundu dezake". Bitartean foruzainak ikerketarekin segitzen dute, berritasunik gabe. Hildakoaren senide eta lanei deklarazioa hartu zieten. Baita etxera bueltatzea erabaki aurretik berarekin egon zirenei ere.

## » Arruazu

## Ganboa eta Askapena absolbituak

Espainiako Auzitegi Nazionalak Aritz Ganboa De Migel eta Askapenako beste lau kide absolbitu ditu. Horretaz aparte, erakunde internazionalista eta haren menpeko erakundeak ez ditu legez kanpo utziko. "ETAren nazioarteko frontea" izatea leporatuta epaitu zituzten udazkenean, baina epaileek ez dute Askapenaren eta ETAren arteko "inolako harreman zuzenik" aurkitu. Halako loturirik ez dagoenez, ondorioztatu dute Askapenako "zuzendari" izateak ez dakarrela inolako delituri. Auzipetuek sei urteko espetxe zigorrari, 7.200 euroko isunari eta 14 urteko inhabilitazioari ixkin egin diote.

Askapenatik adierazi dutenez, "absoluzio sententzia garaipen bat da, dudarik gabe, eta bereziki, garaipen politiko bat da. Bai Euskal Herriko eta baita lagun ditugun beste herrietako pertsona eta antolakunde garaipena da, estatu espainiarra bere politika errepresiboan mantentzearen aurkako bidean herri borrokaren aldeko apustua egin dugunona". Aldi berean, Askapenak "esker ona"



Askapenako bostak Iruñeko Kaldererian. ASKAPENA

adierazi die "eskubide zibil eta politikoen defentsan, zein guk defendatu eta garatzen dugun proiektu internazionalistan haien elkartasun eta konpromiso militantea adierazi diguten kide, antolakunde eta instituzio guztiei".

Auzipetuek azken bost urteetan "sufritutako kalteak" (atxiloketa, espetxea, dispertsioa, baldintzapeko askatasuna, ondasunen blokeoa, hipotekak, pasaporteak kentzea eta kontrol judiziala) absoluzioak ez dituela ordaintzen salatu

dute. Bostek salatu dutenez, "oinarriko eskubide zibil eta politikoen urratzeak, zein espainiar botere publiko eta faktikoek abiatutako kriminalizazio politiko-mediatikoak drastikoki baldintzatu dute gure eguneroko bizitza pertsonal zein militantea eta ez gaude prest eskubideen urratze hauek guztiak oharkabean pasa eta ahanzturara pasa daitezen". Euren militantzia internazionalistan ez dutela etsiko adierazi dute bostek. +www.guaixe.eus

## Hyundai Tucson berria

Aldatzea jarrera bat da



Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirraragarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea [www.hyundai.es-en](http://www.hyundai.es-en)

 NEW THINKING.  
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.  
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Gama Hyundai Tucson: CO<sub>2</sub> (gr/km) isurtzea: 119-175.  
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A.ren bidez finantzatu dute bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaio entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2016/01/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzazioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai konzesionarioetan edo [hyundai.es-en](http://hyundai.es-en).

#changeisgood

## » Altsasu



Javier Paz, Arantza Bengoetxea, Jose Luis Ojer eta Saioa Erro.

## EH Bilduk aurrekontuetarako emendakinak aurkeztu ditu

**Koalizioak heldu den urteko aurrekontuak egiterakoan herritarren partehartzea lantzea proposatu du: azalpen hitzaldiak, subentzioak jasotzen dituzten taldeekin bilerak, herritarrek finkatzeko partidak...**

“Behin udalak aurreko legegintzaldietako finantza-kargak atzean utzi dituela eta Nafarroako aldaketari esker, 2009rako murrizketek aurrekontuan izan zuten eragina desegiteko plan bat mar txan jarri dezakegu. Lana ez dugu urte honetan bukatuko, baina bai legegintzaldi honetan izateko pausak eman”. Arantza Bengoetxearen hitzak dira, Altsasuko Udalean EH Bilduren eledunarenak, aurrekontuei aurkeztutako emendakinak azaltzerakoan esandakoa. Eta gaineratu zuen: “anbizioarekin jokatzeko garaia da”.

Emendakinei dagokienez, koalizioak kirol elkarrekin dauden hitzarmenatarako diru saila %10 handitzea eta 11.000 euro gehiago bideratzea eskatu du. Ehuneko bera handitzea eta kultura taldeendako diru-laguntzen poltsa 4.000 euro gehiagorekin betetzea eskatu dute. Bi arlo horietan %30eko murrizketak izan ziren 2010ean eta hiru urteetan %10eko igoerak egitea eskatzen du EH Bilduk, “2010eko egoerara bueltatzeko”.

Bideen konponketara 5.000 euro

gehiago zuzentzea eskatu du koalizioak. Horrekin batera, bideen konponketarako hainbat urtetarako plangintza egitea beharrezko jo du. Gainontzeko emendakinak honakoak dira: kaleen konponketara 3.000 euro gehiago; gizarte kooperazio proiektuetara, liburutegirako eta Eguberarendako 2.000 euro gehiago eta peñendako 1.000 euro gehiago. Guztira 30.000 euroko emendakinak aurkeztu ditu EH Bilduk. “Udaleko kontu-hartzailearekin kontrastatuak daude, egin daitezkeen emendakinak dira”, ziurtatu zuen Bengoetxeak.

Diru-sailen bat handitzea posible balitz EH Bilduk honakoetan egitea proposatu du: jaietako ekintzak, bestelako jaietako ekintzak, jubilatuei diru-laguntzak eta Olenztero. “Izan ere, aipatutako sailek %30ko murrizketa jasan zuten 2010ean”. Nafarroako Gobernuaren musika eskolarako ekarpena handituko balitz familien ekarpena txikitzea edo aurreko lau partidak handitzea proposatu du.

### Inbertsioak

Soberakinarekin egin daitezkeen inbertsioak udaleko batzordeetan lantzea eta denen artean adostea proposatu du EH Bilduk, aurreko lau urteetan egin den bezala.

+www.guaixe.eus

## »



Astelehenero batzarra eta gero atxilotuen askatasuna eskatu zuten.

## Epaileak Indar Gorriko bi kideri “talde kriminalekoak” izatea egotzi die

**Altsasuarrek azaldu dutenez, “muntaia bat da, deserosoak garelako egin dute”**

Iruñeko Bigarren Instrukzioko Epaitegiko Fermin Otamendi epailearen aginduz astelehenean Indar Gorriko 18 kide atxilotu zituzten Nafarroan barna, tartean bi altsasuar. Bi egun polizia etxean eta Guardia Civilaren komandantzian egon ondoren epailearen aurretik pasa eta aske gelditu ziren. Epaileak guztiei “talde kriminaleko kide izatea” leporatzen die, ustez “kide edo aurkari diren beste zale erradikal batzuekin borrokaldi bortitzetan parte hartzeagatik”. Epailearen arabera ikertuen helburua “beste zalego erradikal batzuetako kideak jotzea zen. Futbola lesio delituak egiteko aitzakia zen”. Haren arabera ikertutakoetatik sei buruak lirake. Epaileak argi utzi nahi izan du ikerketa ez dela Indar Gorriren kontra bai zitekeen eta pertsona jakin batzuen kontra.

Epaitegian erakutsi dieten organigramarekin “erabat harrituta” gelditu direla azaldu dute bi altsasuarrek. “Kriston pelikula egin dute”. Adierazi dutenez, “azkenaldian hainbat neurri errepresibo hartzen dira zenbait esparruetan eta kirolean eta futbole-

an ere” Gaineratu zuten, “futbolearen aldarrikapenerako tarte bat dago, eskubideak eta askatasunak aldarrikatzeko”.

A Coruña zale bat Madrilen hil eta gero futbol taldeetako peñek behar bezala eratu eta elkarrean zerrenda batean izen ematera behartu zituzten. Indar Gorrikoek uko egin zioten. “Hainbat estamentuen neurri murriztaile eta errepresiboak jasan izan ditugu. Guk horri aurre egin diogu: ezin dugu Indar Gorriren pankartarik atera; ezin dugu materialik atera; presoen aldeko ikurra eramaten badugu 9.000 euroko isuna jasotzen dugu; Sadarrekoa kriston apartheidegoera da, futbol-Gaza bat bizi dugu”. Horren aurrean, “gure eskubideen eta askatasunen alde kanpaina bat hasi genuen eta aurrekoan polizia batek esan zuen: hori pagatu egiten da”. Gaineratu dutenez, “nor bere esparrutik gizarte hobe baten alde borrokan saiatzen da. Zaleok gure eskubide eta askatasunak ditugu eta horiek aldarrikatzen ditugu. Eskubide guztia dugu”.

Abokatuak esan dienez, auzibideak “luze” joko du eta epaileta “agian bi urte barru” izanen dela. Banda kriminaleko kide izateagatik urte bateko eta hiru urte arteko espetxe zigor eskaerei aurre egin diezaiekete. Madrilgo Vallecas auzoko taldeko Bukaneros zalegoko kide batzuei ere halako salaketa egin zieten eta epaiketa ez zen egin. Esperantza hori dute haiek ere.

+www.guaixe.eus

## » Irurtzun

## Kurdistan-Siriako errefuxiatu eremuie buruzko zikloa

Sakana Harrera Hiriak-ek antolatuta, Siriako gerraren ondorioz errefuxiatuak dauden pertsonen, haiek hartzen dituzten eremuie eta harreari buruzko hitzaldia izanen da asteazkenean, 19:30ean, Irurtzunge kultur etxean. Horretaz aparte, Gani Mirzok, Alepoko artista kurduak, Irurtzunen kontzertua eskainiko du otsailaren 13an, larunbatean, 20:00etan. Ondoren Iraken dagoen Domiz errefuxiatu eremuekiko elkartasun afaria izanen da Iratxo elkartean. Txartelak ostegunera arte Iratxon, Monkloan, Pikuxarren edo 669 126 99 telefonon (Peio) erosi daitezke.

## » Altsasu



## Alde hemendik aldarrikatzeko kandela hegalaria

Polizia-errepresio indarrak alde egitea aldarrikatzen duen Ospa mugimendua gaur arratsalderako hitzordua jarri du. Kintoen zortzikoen dantzen atsedendian *alde hemendik* aldarrikatuko duten kandela hegalaria airearatuko dituzte. 18:30etik aurrera Foru plazan haiek saltzeko postua izanen da eta denak batera airearatuko dituzte. Aurkezpenean Ospa mugimenduko kideek adierazi zuten, “*gauaren iluntasunean argi gera dadila: alde hemendik.*” Ospako kideek gaineratu dutenez, “herritarren gehiengo zabal batek indar okupatzaile eta errepresiboen inguruan nahikoa da ozen aldarrikatzeko eta desmilitarizazioaren borrokan pausak eman daitezkeen eskatzen ari da”. Mugimenduko ordezkarien iritziz “elkar-bizitza eta egunerokotasuna baldintzatuta dugu, kontrolatan, eguneroko patruilajeetan, katxeo edo identifikazioetan. Onartezina da eta nazkatuta gaude, horregatik gauak argitza goaz”.

## Lau zango, milaka irri programa

**ARRETA GOIZTIARRA**  
0-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta

**LAGUNTZA ETA GARAPENA**  
6-16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta

**Bere garapenean zailtasunak edo izateko arriskuan dauden haur eta gazteak**

**GURASO ESKOLA**

**IZEN-EMATEA ZABALIK**



Arlo kognitiboa  
Arlo motorra

Hizkuntza eta komunikazioa  
Autonomia  
Abilezia sozialak  
Joko abilezia  
Heziketa emozionala  
Estimulazio multisensoriala

Informazio gehiago:

646 123 768  
proyectos@bocalanbiakbat.org

**nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomataua (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenz.com  
nereacenz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan  
Estafeta 16, atzea · Lakuntza (Bostekoa masaje zentroan)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

## Kintoak Sakanan

## UHARTE ARAKIL

## Kintoen festa, atzotik

UharTE Arakilgo aurtengo 11 kintoek atzo hasi zituzten ospakizunak. Ondokoak dira aurtengo kintoak: Sua Herrador, Leire Fernandez, Mikel Martiarena, Jon Arenaza, Ane Mendinueta, Sara Baigorri, Olaia Agirre, Andoni Zazpe, Nahia Lakuntza, Aritz Guillerme eta Luis Beraza. Atzo bazkaltzera bildu ziren eta arratsaldean baserrietan aritu ziren eskean. Ohitura denez, udalak mojen etxe-ko gela bat utzi die eta ospakizun egun hauetan bertan lo eginen dute. Gaur goizean fabriketara joanen dira eskaltzera eta arratsaldean eta larunbatean herriko kale guztietatik barna ibiliko dira. Larunbatean ihoteekin bat egingo dute.

## LAKUNTZA

Aurten 11 kinto daude Lakuntzan, 8 mutil eta 3 neska: Lorena Cerezo, Mirari Imaz, Leire Fernandez, Josu Cerezo, Gorka Arbizu, Xabier Maiza, Unai Zubiria, Ander Cartagena, Agustin Imaz, Aitor Turumbai eta Oier Larumbe. Haiekin batera kinto gazteak egonendira ere, 17: Cristina Añazco, Nekane Mendieta, Ariane Andueza, Maria Zubillaga, Leire Meaza, Leire Berjerra, Rosmery Ozoria, Saioa Aranzasti, Miren Agirre, Munia El Marhoum, Cristian Jimenez, Gaizka Sagarzazu, Javier Lopez, Migel Gomez, Andoni Escudero, Mikel Agirre eta Joseba Galindo. Astelehenean etxez etxe eta lantegiz lantegi festarako diru eskean ari kodira. Tximonen bazkaltzeko geldialdia eginen dute eta afaltzeko geldialdia eginen dute eta afaltzeko geldialdia eginen dute eta afaltzeko geldialdia eginen dute. Gauean Tolosako ihoteetara joanen dira. Asteartean eskean jarraituko dute, eta ospakizunak Altsasun despidituko dituzte.

## ARBIZU

## Kintoek asteartera arte festa

Arbizuko aurtengo kintoak Josu Etxabarri, Andrea Ganboa, Aroa

## Olaztin, astelehenera arte kinto!



Herenegun afaltzera elkartuz hasi zituzten aurtengo kinto ospakizunak Olatzagutian. 11 kinto dira, 2 mutil eta 9 neska: Iban Imaz, Markel Galbete, Irantzu Imaz, Lorena Lopez de Goikoetxea, Leire Vilariño, Maider Vilariño, Naroa Gurmino, Amaia Zubikoa, Jessica Aristu, Alba Marin eta Cristina Lucero. Atzo, txaranga lagun zutela, dirua eskatzen ibili ziren. Gaur goizean, meza eta gero, herriko medikuari, apezari, gazteenari eta adinduari opil bana banatuko dizkiote. Azken bi horiek Imanol Arregi eta Jacinto Perez Lezea dira. Bazkaria eta afariarekin borobilduko dituzte gaurko ospakizunak. Olatzagutiko kintada guztiak bihar festarako hitzordua dute. Kintoak 11:00etarako txarangaekin herrian barna ibiliko dira eta eguerdia pasata talde argazkia aterako dute. Eta haiekin aurten 45 urte eta 60 urte betetzen duten kintadek ere. Arratsaldean plazan dantzarako aukera izanen dute guztiak, 19:00etatik 23:00etara, Drindots taldearekin San Miguel plazan dantzatzeko aukera izanen da; eguraldi txarra eginenez gero frontoira lekualdatuko da. 20:00etan, bestalde, gazteekin Eingo al deu taldearekin erromeria izanen da. Domekan, kintoak bazkaltzera elkartuko dira. Arratsaldean, txaranga lagun, musika doinuak herrian barna zabalduko dituzte, afaltzeko garaira arte. Kinto olaztiarrek astelehenean despidituko dituzte ospakizunak, afaria eta parranda eginenez.

Petriati eta Miren Lazkoz dira. Agozbeyez (ikustezinak arbizueraz) izena hartu dute. Beste bost kinto zaharrek ino ospatuko dituzte hurrengo egunak. Gaur gauean Argi Bidea elkartean parranda eginen dute eta bihar Arbizuko ihoteetan murgilduko dira. Igandean musikaren laguntzaz etxe eskean ariko dira. Gauean Tolosako bidea hartuko dute. Astelehenean lantegietara eskean joanen dira, atzera ere Tolosara joateko. Asteartean kintoek herri inauteriaren antolakuntzan lagunduko dute: hurrengo jolasak eta txokolate-jana prestatu, aittun handiya eta amiñ txikiya atondu eta Aldabide elkartean herri afaria prestatu.

## ETXARRI ARANATZ

Ikus azken orrian, 11 galderak.

## BAKAIKU

## Hiru egunez kintoak nagusi

Bakaikuko aurtengo kinto segizioa

10 gazte osatzen dute. Haietako bi, Adur Senar eta Olatz Agirre, dira kintoak. Gainontzekoak kinto gazteak eta kinto zaharrak dira, launa zehazki. Gaur Bakarrekotxea elkartean bazkaria eta afaria izanen dute. Tenplearen arabera, Altsasura joanen dira. Bihar, 9:30etatik aurrera, kinto-eskean ariko dira. Trikitilariak izanen dituzte lagun. Ondoren, autobusez sagardotegira joanen dira. Ibilgailua beti-kintoekin beteko dute. Bueltan parranda Altsasun segituko dute. Domekako afariaren ondoren, posible da Altsasun bukatzea.

## ITURMENDI

## Kintoak gaur eta bihar jai

Iturmendiko aurtengo kintada 10 gazte osatzen dute: Oihan Artola, Josu Gabirondo, Aitor Lopez, Igone Olmos, Iñaki Olmos, Sliman Boujaja, Ainhoa Lopez, Nahia Nuñez, Nuria Lanz eta Oihane Gabirondo. Kinto segizoa, berriz, haiek baino bi urte gazteagoak eta helduagoak

diren iturmendiarrak osatuko dute, guztira 29. Aritzaga elkartean afaltzera elkartuko dira eta ondoren Sergey dj-rekin dantzaldia izanen dute. Bihar, 10:00etan, gosaltzeko hitzordua dute jarria. Trikitilariak, panderojoleak eta bonboa aldean dituztela, eskean ariko dira. Iturmendiarreri, esker onez, pastak eta moskatela eskainiko dizkiote. Arratsaldean karaokearekin primeran pasa eta gero, Altsasuko kintoak ikustera joanen dira eta han afalduko dute, parranda luzatuz. Kinto iturmendiarrak urteko lehen minututan kalera atera ziren eta Urteberri abesten kantu-eskean aritu ziren. Jasotako dirua kinto ospakizunetan gastatzeko gorde zuten.

## URDIAIN

## Protagonistak, 10 kinto

Hamar urdiaindarrek osatzen dute aurtengo kintada: Jon Mendia, Uxue Mendez, Amaia Galartza, Hugo Ostiza, Sarabe Arakama, Iratxe Urrutia,

Asier Pardo, Bingen Galartza, Eneko Villar eta Ander Galartza. Denak bazkaltzera elkartuko dira gaur. Ondoren, trikitilarien laguntzaz, kalejiran ibiliko dira. Ibilbidean axuri baten zozketarako txartelak salduko dituzte. Afaldu eta parranda pixka bat eginenez despidituko dute eguna. Larunbatean, 11:30ean Benignoren omenezko gosaria egonen da plazan, eta 12:30ean 25 urteko kintoek zortzikoa dantzatuko dute. Aurtengo kintoak, bazkaldu eta gero, baserrietara joanen dira boletok saltzera. Arratsaldean gainontzeko kintadekin bildu eta parranda ordu txikietaraino luzatuko da. Domekan, 10:30ean, kintoek txistulariekin batera gosalduko dute. 12:30ean plazan, frontoian eguraldiak laguntzen ez badu, zortzikoa dantzatuko dute. Aurten bost mutilek eta neska batek eginen dute. Hura errege bezperatik entseatzeari dira Javier Zelaiaren, Ipiren, esanetara. Ondoren axuria zozketatuko dute eta eskean ibiliko dira.

## ALTSASU

## Kinto ospakizun luzeak hastera doaz

Gaur hasi eta asteazkenean despidituko dira Altsasuko kinto ospakizunak, asteartean ihoteendako geldialdia egin eta gero. 59 gazte osatzen dute aurtengo kintada, 34 neskek eta 25 mutilek. Haien guztien buru Melany Morales eta Imanol Lobo Yeregi (erregina eta erregea) eta Paula Diaz Diego eta Alberto Barrikarte Calvo dira (erregina-ordea eta errege-ordea). Hirugarren urtez segidan guztiak batera eskatuko dute. Aurten 25 urte beteko dira neska talde bat Santa Ageda eskean aritu zena. Kinto altsasuarrek atzo hasi zituzten euren ospakizunak. Haietako batzuk Santa Agedaren omenezko elizkizunean izan ziren iluntzean. Hala ere, gaur dute egun handia. 7:00etarako kintoak kalean izanen dira, festarako dirua eskatzen. Neskak baserriarrez jantzita eta mutilak goitik behera txuriz, bularra

**2016-2017 ikasturtea**

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA: **otsailaren 15etik 19ra**



**ZELANDI Herri-Eskola**

Zelandi, 18 • 31800 ALTSASU  
948 564 839

cpalsasu@educacion.navarra.es  
http://zelandieskola.educacion.navarra.es

**Haur Hezkuntza (3-6 urte)**

**Lehen Hezkuntza (6-12 urte)**

**A eta D ereduak**

**Ingelera eta informatika**

**Haur Hezkuntzatik**

**Jangela zerbitzua**

**Eskolaz kanpoko jarduerak**







## Kintoak Sakanan

gurutzatzen dien zapiekin, kaikuekin eta txapelarekin. 9:00etan kintadako lau buruak, Mainer eta Axio zahato-eramaileak lagun, udaletxetik abiatuko dute santa-eskea, opilak bilduz. Mutilek, gainera, zintaz edertutako gorosti makila eta dirua jasotzekoo zilarrezko erretilua izanen dituzte aldean.

Bildutako dirutzarekin kinto ospakizuneko bazkari-afariak eta bestelakoak ordainduko dituzte. Gaueko taberna batean ordu txikiak arte egonen dira. Gaur Gautxorin, domekan Koxkan, astelehenean Xumen eta asteazkenean Arkangoan.

## DANTZA

Gaur, 19:00etan lehen zortzikoa dantzatuko dute. Bost egun dituzte denak dantza egiteko. Andoni Beramendi eta Txetxo Claver izan dira aurten dantza irakasleak.

## EZTEIAK

Alsasuko kintada guztiak bihar elkartuko dira. Baina gaurko egunez festa egun handia dute kinto gisa zilarrezko, urrezko eta platinozko ezteiak egiten dituztenak. Aurten 60 urte egiten dituen kintadak bere ospakizuneko oroitzapen berezia du. Izan ere, Kunkunak zinema amateur taldeak ospakizun haien grabazioa egin zuen. Gaur egun Interneten ikus daiteke bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=RHkgtV7--0>

## ZIORDIA

## Hiru festa egun 5 kintorendako

Aurten bi ziardiar dira kintoak: Aia-ra Fernandez eta Gorka Mujika. Haiekin batera hiru kinto gazte ibiliko dira: Amaiur Bengoetxea, Maitte Cristobal eta Leire Berjera. Errekakartea elkartean bazkalduko dute eta gauean Altsasura joanen dira. Larunbatean hamaiketako egingen dute. Santa eskean abiatuko dira ondoren, trikitali lagun. Esker onez, ziardiarrei ardo edo tabakoa eskainiko diete. Jasotakoa zenbatu ondoren, euren gurasoek prestatutako bazkariarekin berdinduko dute tripa zuloa. Iluntzean Altsasuko kintoak dantzan ikustera joanen dira, 4 kinto zaharrekin. Ordu txikiak arte luzatuko da gaua. Domekan tabernan bazkalduko dute eta kinto ospakizunak Altsasun despidituko dituzte.

## Inauteriak Sakanan

## Badatoz ihoteak!

## IRURTZUN

## Gaur herri inauteria, bihar hiri inauteria

Eskolako ikasleek gaur goizean abiaraziko dituzte ihote ospakizunak. Arratsaldean herri ihotearen txanda izanen da eta horrek, bihar, lekuak hiri inauteriari pasako dio.

## &gt;&gt; Otsailak 5, ostirala

**10:15ean** Mozorroen desfilea, hamaiketako, kalejira Irurtzunen barna, Marigorriren erretzea eskolan.

**18:00etan** Herri inauteria, plazatik: joaldun handi eta txikia, mitologia-pertsonaiak (Iskidi). Txitorra-jatea, Mielobxinen erreketak. Otamena, Larrazpin.

**23:30ean** Kontzertuak Larrazpin: Katez, Skarmentu eta Desperdizio.

## &gt;&gt; Otsailak 6, larunbata

**13:30ean** Kalejira Jarauta 69 txarangarekin.

**14:00etan** Bazkaria jubilatuta elkartean.

**14:30ean** Herri bazkaria eskolako jantokian.

**17:00etan** Inauteri kalejira, txarangarekin, eskolatik abiatuta.

**18:00etan** Mozorrotutako pertsonen eta koadrilen kontzentrazioa, plazan.

**18:30ean** Inauteri desfilea, plazan.

**19:30ean** Musika eta txistorra-jatea.

**22:30ean** Techno gaua Larrazpi elkartean.

## &gt;&gt; Otsailak 7, igandea

**18:00etan** Oliver magoaren Liburu magikoa ikuskizuna kultur etxean.



18:00ak aldera, mozorrotuak, atzera ere, kalera aterako dira. Oraingoan, Atxun Zarkoa lagun dutela herrian barnako kalejira egingen dute, trikitaliari lagun. Ibilbidea elkartean parean despidituko da eta Atxun Zarkoak han bere azkena ezagutuko du, sua. Ihote afariarekin irintarrek ospakizuna ordu txikiak arte luzatuko dute.

## UHARTE ARAKIL

## Goiz goizetik mozorrotutako festa Uhartan

Bihar, larunbat goizetik ospatuko dira inauteriak Uhartan Arakilen. Goizeko 10:00etan gosarian bilduko dira, eta, hortaz, goizetik murgilduko dira uhartearraren inauterietan. Goizean gosaltzera bilduko dira koadrila batzuk. Ondoren, herriari buelta emango diote fanfarrearekin. Uhartan Arakilgo joaldunak ere batu egingo dira kalejirara.

15:00etan bazkaltzera bilduko dira, Aralar Mendi elkartean. Majo baz-

kaltzera, 17:30ak aldera kalejira koloretsua abiatuko da handik, musika lagun, herria zeharkatuko duena. Jakina, parrandak ordu txikiak arte segituko du.

## ARRUAZU

## Moxorroek kalera

Urteromoduan, etxeko txikiak izanen dira Arbazuko moxorroen protagonistak. 17:00ak aldera aterako dira mozorrotutako haurrak plazara. Moxorroak herri ihoteko Arruazuko pertsonaiak dira, burua estalita eta zigorra eskuan, jende berotun nahian ibiliko direnak. Etxe etxe egindako errondan bildutako jaki eta diruarekin, txikiak Itur-Gain elkartean merienda ederra egingen dute.

## LAKUNTZA

## Bihar mozorro festa, asteartean zatamarroek hartuko dituzte

## kaleak

Larunbatean mozorro festa antolatu dute Lakuntzan. Egurditikaurre-ra hasiko dira lehen mozorrotuak ateratzen, eta bazkari herrikoian bildu eta gero, arratsalde eta gau partean parranda ederra egiteko aukera izango da Lakuntzan.

Ihoteek jarraipena izanen dute asteartean. Etxeko txikiak moxorrotuko dira eta eguneko protagonistak, zatamarroak, aterako dira kalera. Soinean arropa eta zaku zaharrak jantzita, aurpegia zapi batekin estalita, buruan lastozko txapela eta eskuan erratza, sardea edo urritz makila dutela, jendearen atzetik ibiliko dira, izutu eta haiek berotzeko asmoz. Haiek zirikatze "Zatamarro begi-gorri urtien behin etorri" kantatuko diete hurrek.

## &gt;&gt; Otsailak 6, larunbata

**13:00etan** Salda plazan.

**14:00etan** Bazkari herrikoia Kultur Etxean. (Txartelak Gure Nahia elkartean salgai). Ondoren musika eta dantza!

## &gt;&gt; Otsailak 9, asteartea

**17:00etan** Txokolatada plazan, musika eta dantza.

**18:30ean** Zatomarruek.

# Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



lugarraileak

GUAIXE.EUS

beleixe



**OTSAILAK 6, LARUNBATA**  
Etxarri Aranazko gaztetxean  
18:00etan, bertso-merendua

**EINNEKIN**  
(Etxarri-Aranatz)  
Eneko Lazkoz  
Saats Karasatorre  
Joseba Beltza  
Unai Artieda  
Oier Lakuntza

**BARAKINAK**  
(Barañain)  
Ander Perez  
Lizar Aleman  
Jon Arrizibita  
Pablo Perez

Informazio osoa eta sarreak

WWW.BERTSOZALE.EUS



## Inauteriak Sakanan

## ARBIZU

## Larunbatean mozorro festa eta asteartean Aittun handiya eta Amiñ txikiya

Arbizuarrek bi egunetan ospatzen dituzte ihoteak. Larunbatean mozorro festa izanen da eta asteartean, berriz, ohitura zaharrak berritu eta txatarren eguna ospatuko dute. Arratsaldean, Arbizuko iyoteetako protagonista Aittun haundiya eta Amiñ txikiya erreko dituzte plazan.

## &gt;&gt; Otsailak 6, larunbata

**12:00etan** Aatea plazan.  
**13:00etan** Mozorrotuen kalejira.  
**15:00etan** Herri bazkaria Alda-Biden (Sarrerak Karrikan salgai).

## &gt;&gt; Otsailak 8, astelehena

**17:00etan** Zinea udaletxean: Pippi Galtzaluze.

## &gt;&gt; Otsailak 9, asteartea

**11:00etan** Pixkeet eskien.  
**17:00etan** Haurrendako jolasak (plazan edo kiroldegian).  
**19:00etan** Txistorra plazan.  
**20:00etan** Aittun Haundiya, Amiñ txikiya eta txatamorroak.  
**21:00etan** Herri afaria Alda-Biden.

## UNANU

## Igandean eta asteartean, badatoz Mamuxarroak!

Nork ez ditu Unanuko mamuxarroak ezagutzen? Kamixeta eta galtzontzilo luze zuriak, gerriko beltza edo gorria, paxpalinak eta zatak soinean dituztela eta aurpegia metalezko katolaz estalita, kalera aterako dira igandean eta asteartean, Unanubildutako guztiak izutzerat. Makila arin-arin mugitzen dute eta inor gutxi libratzen da hanketan makilakada majoa hartzeaz.

Igandean mamuxarro txikiak izanen dira protagonista, eta astearte-ihotean mamoxarro handiak. Bi egunetan arratsaldeko 16:30 edo 17:00ak aldera aterako dira mamoxarroak, eta 18:00ak arte Unanuko karriketan gora eta behera ibiliko dira, jendea berotzen. Ondoren auzatea eginen da eliza atean, musikak lagunduta. Ohi bezala, astearte ihotean herriko emakumeek prestatutako piperropil goxoak ez dira faltako. Gauean, herriarrek afaria eginen dute eskean ateratakoarekin.

## LIZARRAGA

## Bihar denok mozorrotuta!!!

Bihar, larunbatearekin, ihoteetan murgilduko dira lizarragatarrak. Duela gutxi berreskuratutako ospakizuna, arrakasta handiz. Bihar eguerdian haur, gazte eta heldu guztiak mozorrotuko dira. Azi Iturri elkartearen bapoz bazkalduta, eta arratsaldean herriaren barna eskean ibiliko dira mozorrotutako lizarragatarrak, musika lagun. Etxeetan eskean jasotakoarekin, gainera, afaria eginen dute atzera ere elkartearen.

## ETXARRI ARANATZ

## Ihoteetako azken bi egunak

Azken hiru ostegunetan gizakunde, andrekunde eta garikunde ospatu ondoren, Etxarrin ihoteetako hurrengo protagonistak haurrak izanen dira. Igandean zalduniyotea ospatuko dute. Txatarraz jantzita mozorrotuko dira txikiak eta plazan elkartuko dira, 17:30ean. Herrian barnako kalejira eginen dute musikak lagunduta eta hura despeditzeko txokolate-jana izanen dute, Udaberri elkarteak eskainia.

Astearte-yoterekin despedituko da Etxarriko mozorro garaia (festetako astelehenera arte). Libre dinamikak egun horretarako laranja kolorez mozorrotzeko deialdia egin du. Iyote batzordeak, bestalde, urtero moduan egitaraua prestatu du.

## ITURMENDI

## Igandean txikien mozorroak eta asteartean jitemotxorroak

Iturmendin domeka dute inauterietako egun nagusia. 17:00etatik aurrera mozorroen kalejira izanen da, buruhandiekin, eta festarekin bat eginen dute herritar guztiek, haurrek bereziki. Urtero bezala, kalejira parte hartuko du dragoi miragarriak. Mozorro giroan, iturmendiarrek buelta eman diote herriari. Festa borobiltzeko, 18:00etan txokolatada eginen dute frontoian. Eguerdia laguntzen ez badu Aritzaga elkartearen babestutako dira.

Asteartean ihote giroak jarraipena izanen du Aitzkozar elkartearen. 19:00ak aldera jitemotxorroen kalejira zaratatsua eginen dute

gain, mozorro ezberdinez jantzita egongo dira txikienak. Txokolatada izatenda Urdiaingo plazan, eta eguraldi txarra eginez gero, frontoian. Momoxarro handien eguna astearte arratsaldekoa da. Momoxarroek korrikaldi ederrak eginaraziko dizkiete 18:00etatik aurrera, iluntzen duenetik aurrera, kooperatiba parean bilduko direnei. "Momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero" kantatuko diete. Bestalde, sorgin afaririk ere izanen da asteartean.

Momoxarroak, bai txikiak bai handiak, goitik behera jantzen dira, aurpegia bera ere estaliz. Hainbat itxura har dezakete: ardi-narruak dituzte batzuek, buruan txano konikoa jantziko dute besteek, ohe-estalkiak, farak eta beste. Arratsalde osoa mozorrotuta egon eta gero, 20:00etan aurpegiko tapakiak kentzea da ohitura.

bitartean bisitariak hori ikusteko aukera izanen dutela, baina frontoira sartzeko deia eginen zaienean, Zelandiko eremutik ateratzea eskatuko dute. Momotxorro txikiak segizioaren irteeraren ezkerreko aldean egoteko eskaera luzatu dute, aurreko urteetako istripuak ez errepikatzen. Ibilbidean hiri-altzariak errespetatzeko eskatu dute inauteribatordoko kideek, baita artzainen esanak kontuan hartzeko ere.

## &gt;&gt; Otsailak 7, domeka

**17:30ean** Haurren maskarada, lortia kultur guneko zabalgunean. Txokolate-jana, dantzaldia, eta mozorro festa Dantza Kasting taldearekin.  
**20:30ean** Zezensuzkoa.

## &gt;&gt; Otsailak 9, asteartea. Herri inauteria

**14:30ean** Herri bazkaria, Burunda pilotalekuan.  
**16:30ean** Puska biltzea, Alde Zaharrea.  
**16:30ean** Momotxorro txikien elkarrearteratzea eta txokolate-jana, Zumalakarregi.  
**17:00etan** Momotxorro txikien irteera.  
**17:30ean** Auzatea, Gure Etxea eraikinean.  
**18:00etan** Inauteri txikiaren etorrera eta Momotxorro txikien dantza, Foru plazan.  
**18:20an** Momonzuskoa.  
**18:30ean** Kalejira, Foru plazatik Zelandiraino.

Torrada dastatzea, Gure Etxea eraikinean.  
**18:45ean** Odolaren erritua eta herri inauteriko elkarrearteratzea, Zelandin.

**19:00etatik 21:00etara** Dantzaldia Beti Jai bikotearekin, Foru plazan.

**19:30ean** Herri inauterieren irteera, Zelanditik.

Sorginen itzulera, akelarrea, Dantzarima konpainiaren emanaldia Zumalakarregi plazan.

Ezkontza eta gozagarría, Gurutze Saindua auzoan.

**21:00etan** Foru plazara iritea eta Momotxorroen dantza.

Ezkila-jotzea, mozorroak kentzea eta momotxorroen akaberako dantza.

**22:00etatik 24:00etara** Dantzaldia Beti Jai bikotearekin, Foru Plazan.

Aste Santua  
**Futuroscope 199€**  
 ... eta gainera  
**595€** HELDUA  
**379€** HAURRA  
**Ekainan**  
 4 egun / 3 gau. Hegaldia Miami-eretik aireporturako Joan-erortekin, Disney's Hotel  
 Cheyenne hotela, Gasariak, 3 egunetarako sarrerak eta ikustaldia Parisen zehar, tokiko gidari baten laguntzarekin barne  
**Disney**  
 www.viajeseroski.es  
 www.escapareteviajes.es  
**EROSKI Bidaia**  
 Anestatu? Ezia Legar!

## &gt;&gt; Otsailak 9, asteartea

**10:00etatik 14:00etara** Kalejira trikitaliarekin, kintoen eskutik.  
**12:00etan** Gaur Jaia, haurrendako animazioa eta dantzaldia.  
**14:30ean** Herri bazkaria Karrikestu elkartearen, Libre antolatuta.  
**17:30ean** Txokolate-jana.  
**18:00etan** Kalejira, Libre antolatuta.  
**18:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Orots taldearekin.

## BAKAIKU

## Asteartean txikienak protagonista

Asteartean, Bakaikuko gurasoek antolatuta, haurren ihotea ospatuko da. Eguerdirako mozorrotuta egonen dira bakaikuar txikiak, eta elkartearen bazkalduko dute. Santa Ageda kantuan eta eskean bildutakoarekin ordaintzen da bazkaria. Arratsaldean, kalejira koloretsuak zeharkatuko du Bakaiku, plazan despedituko dena, txokolate beroa edanez. Bestalde, aipatzekoa da aurten kamarroen ihoteak otsailaren 20an ospatuko direla Bakaikun.

herriaren barna, eta, ondoren, Aitzkozar elkartearen beroan elkartuko dira afaltzera.

## URDIAIN

## Mantaguna, momoxarro txikiak eta handiak

Aurten ihoteak eta Santa Ageda ospakizunak bat eginen dute. Larunbatean Urdiaingo kintada guztiak bapoz bazkaltzen egongo dira, baina txikiak ihotei hasiera emanen diote. Izan ere, larunbatean Mantaguna ospatuko da Urdiainen. Arpilezko mantak edo zakuak soinean jantzita, ikusi ahal izateko bi zulo eginda, inguruan dituztenak zirikatuko eta berotuko dituzte mozorrotuek. "Mantaguna guna, guna, guna, zakuan kunkuna" kantatuko diete. Domekan momoxarro txikien txanda izanen da. Iluntzen duenetik, aurrera eta atzera ibiliko dira momoxarro txikiak, jendearen atzetik, haiek berotzeko asmoz. Horretaz

## ALTSASU

## Txikienek abiaraziko dituzte ihote ospakizunak

Haur altsasuarrek hiru data dituen ihote ospakizunari hasiera emanen diote. Domeka arratsaldean haiek izanen dira nagusi. Asteartean herri ihotea ospatuko dute eta heldu den larunbatean, hiri inauterieren txanda izanen da.

Astearteko ihoteko segizioa honako pertsonaiekin osatuko dute: momotxorroak, ereintza, juan-tranposoak, maskaradak, akerrak eta sorginak, ezkontza eta matxin gaiztoak. Eta berritasuna Zumalakarregi plazan ikusteko aukera izanen da. Dantzarima dantza konpainiako kideak, sorginez mozorrotatuta, akelarrea antzetzuko dute.

Bestalde, inauteri batzordeak hainbat ohar zabaldu ditu ihote segizioa behar bezala segitzeko. Batetik, jakinarazi dute momotxorroak eta beste pertsonaiek Zelandin jantzen diren

## OLATZAGUTIA

## Haur ihotea asteartean

Olatzagutiko haurren mozorro festa asteartean izango da. 17:00etan pilotalekuan elkartuko dira mozorrotu txikiak. Han merendu ederraz gozatzeaz aparte diskoetea izanen dute. Otsailaren 13an herri inauteria ospatuko da Olaztin, eta otsailaren 20an hiri inauteria. Egun hone-tarako Udalak Inauterietako I. Karrozen Lehiaketa antolatuko du. Egunean bertan eman behar da izena. Lehen saridunak 200 euro jasoko ditu eta bigarrenak 100 euro.

## ZIORDIA

## Haurren mozorro festa

Ziordiarrek asteartean haurren inauteria ospatuko dute. Hitzordua 17:00etan jarrita dute. Mozorrotu txikiak segizioa osatu bezain laster kalejira abiaraziko dute. Herriaren barna euren mozorroekin eta musikarekin ibili eta gero Errekakartea elkartearen txokolate-jatea eta ogitar-tekoak izanen dituzte zain. Helduek, berriz, hurrengolarunbateraitxaron beharko dute mozorrotzeko. Triki-potea eta elkartearen afaria iragarri dituzte ordurako. Afarirako txartelak salgai daude Urbasa eta Etxaleku tabernetan eta Errekakartea elkartearen, otsailaren 8ra arte (hau barne).



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

[www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



### Alex Jaka Razkin

Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.

**Familia**



### Alex Jaka Razkin

Betiko gurekin.

**Zure gurasoen Etxarriko koadrila**



### Alex Jaka Razkin

Amets bat baldin bada betiko bizia amets ederrena da, amets da guztia.



**Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak**

### Alex Jaka Razkin

Gogora ekartzeko garaian duzu poza begietan. Horrela oroituko zaitugu beti gure bihotzetan.



**96ko kintuek**



### Alex Jaka Razkin

Gogoan dugu gure artean zure lehen eguna, gogoan urteetan zehar eskainitako bizipoza eta alaitasuna. Adiorik ez, eskerrik asko laguna!

**Andra Mari ikastolako zure gelakideak**



### Alex Jaka Razkin

Egunak argitsu ez arren, luze iraungo du zure itzalak.

**Zure lehengusuak**



### Alex Jaka Razkin

Gogoan izango zaitugu. Biyotzes, dolumiñek fameliyai.

**Argi Bidea Gazte Elkarteak**



### Alex Jaka Razkin

Gau ilunean izar berri bat piztu da.

**Jaka Karreran amiñan etxekuek**



**Oroigarriak egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta testuarekin**

**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.eus](mailto:argi@guaixe.eus)

#### JAIOTZAK

- Imanol Arregi Estevez, ilbeltzaren 18an Olaztin.
- Maialen Leitza Errazkin, ilbeltzaren 25ean Arbizun.
- Emily Chamba Maiorga, ilbeltzaren 29an Etxarri Aranatzen.

#### EZKONTZAK

- Juan Ramon Imaz Galbete eta Maria Eugenia Aierdi Gozalo, ilbeltzaren 22an Olaztin.

#### HERIOTZAK

- Francisco Galan Canales, ilbeltzaren 28an Altsasun.
- Maria Zabalo Urizar, ilbeltzaren 29an Altsasun.
- Alex Jaka Razkin, ilbeltzaren 31n Arbizun.
- Pablo Arza Lezea, otsailaren 1ean Altsasun.
- Esteban Diaz Tadeo, otsailaren 2an Altsasun.
- Maria Flores Lanz, otsailaren 2an Lakuntzan.
- Alfredo Urteaga Sagasti, otsailaren 3an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



GRUPO  
Funeraria  
**VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)


24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**




**Hainbat aukera**  
Galdetu  
**948 564 275**



**Tomas Lezea Fernandez**  
**Manolo Cortés Cerro**  
25. urteurrena (1991-2016)  
Hain urrun, hain gertu.  
**Zuen kintoak**



**Alfredo Urteaga Sagasti**  
Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.  
**Familia**



**Fidel Zaldua**  
**Jose Migel Razkin**  
**Miguel Angel Berastegi**  
Kintuek gogoan zaituztegu.  
Arbizun.

**76ko Kintoak**  
Betri gure gogoan zanen zaituztegu.  
Altsasun.

**guaixe.iragarkilaburrak.com**  
**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**  
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com).

**HARREMANETARAKO**  
Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.eus](mailto:zorian@guaixe.eus)



Naiara gure artean egongo zara beti zuk zenuen irrifarrarekin eta zu zinen alaiarekin.  
**Zure kintoak**

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**  
SALDU  
Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranazen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

**Ikastaroak**  
**Emakumeendako oinarrizko defentsa pertsonaleko ikastaroa.** Irurtzungo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu du ikastaroa. Otsailaren 17tik 27ra izanen da ikastaroa, asteazken, ostiral eta larunbatetan, 10:00etatik 11:00etara. Astegunetan kultur etxean eta asteburuan gimnasioan. Otsailaren 12ra arte eman daiteke izena mankomunitatearen bulegoan edo 948 600 694 telefonora hots eginez. 5 euro.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

**ERRENTAN EMAN**  
80 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza alokatzen dugu Etxarri Aranazen. 3 logela, sukalde, komuna eta egongela. Altzariz horniturik. Garajea eta 30 m<sup>2</sup> ko lorategia barne. Tel 609 84 55 99.

**Oharrak**  
**Amalur Montessori Haur Eskola.** Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta [amalur@amalurelkarrea.org](mailto:amalur@amalurelkarrea.org)

**Lamias, Nafarroako Emakume Gazteak.** Atzerrian dauden Estatu Españoleko gazteendako kompetentzia digitalak on line eta doan ikasteko aukera. Prestakuntza-programa 2016ko martxoaren 7an hasiko da eta bukatu ekainaren 5ean, 140 ordu izanen dira. Plaza mugatuak. Argibide gehiago: [formacion@mujeresjovenes.org](mailto:formacion@mujeresjovenes.org). Izen ematea: <http://ow.ly/Xgg9Y>

dira eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektua martxan jartzeko.

mantak, lo zakuak, kanpin dendak, neguko arropa. Bilketa puntuak: Beheko Benta, 3. Altsasu. Astelehenean ostiralera 15:45tik 17:45era. Beste ordutegiak: 660 89 05 45.

**Opatutakoak / galdutakoak**  
**OPATUTAKOAK**  
Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

**Liburu aurkezpena.** "¿Quién con fuego?" eleberria aurkeztuko du Carlos Ollor Razkinek Zierdiko liburutegian otsailaren 25ean, 18:30ean.

**Irurtzungo irakurle taldea.** "La madre" - Maximo Gorki. Martxoaren 3an, 18:00etan liburutegian.

**Benigno omentzeko auzolana.** Apirillean egun osoko omenaldia egingen da Urdiainen. Proiektatuko den ikusentzunezkoa egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: [benignolagunak@gmail.com](mailto:benignolagunak@gmail.com)

**Lakuntzako elkartasun zozketa.** Zerbaki sari-tuak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393; ardo loteak, 121, 1886 eta 2376.

**GoiEner Iruñean.** Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Sakanako Belenzaleen zozketa.** 324 zb. Egoitzara joan saria jasotzera.

**Etxarriko irakurle taldea.** Ilbeltzaren 28an, ostegunetan, 19:00etan liburutegian elkartuko da Jose Luis Asensio "Ixa asap!" liburuz hizketatzeko.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueran sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Irurtzungo irakurle taldea.** Otsailak 4, 18:00etan, "Un armario lleno de sombra" - Antonio Gamoneda

**Arropa bilketa.** Calais-eko errefuxiatuendako:

9 lagunendako  
**TAXIA**  
Jon Kordon  
**IRURTZUN**  
948 500 388 / 629 428 025

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA  
**Santa Agedan**  
Eguneko menua  
Asteburuko menua  
948 467 876 • Altsasu

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu  
Auto berri eta bigarren eskukoak  
**SALMENTA**  
Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea

**PORTUKO** okindegia  
ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Non  
erabili

## ZURE EKO DENDA

## IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsul-  
ta terapeutikoetan.

## HOTEL OLATZEA

## ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea  
doan, menu bereziarekin,  
txupittoa doan.ETXARRI HORTZ  
KLINIKAETXARRI ARANATZ  
%10eko deskontua garbiket-  
etan.

## LURESU

## ALTSASU

%10eko deskontua, eskain-  
tza berezi eta enkarguetan  
izan ezik.

## NORTE ERLOJUDENDA

## ALTSASU

%7ko deskontua produktu  
berrietan, konponketetan eta  
aldaketetan salbu.

## MENDIGAIN

## URDEIAZPIKOAK

## LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero,  
etxeko produktua opari.URREZKOA  
BITXIDENDA

## IRURTZUN

Bitxietan 100€ko erosketa  
egitean, %10eko deskontua.ETXARRI  
KOMERTZIALAETXARRI ARANATZ  
%10eko deskontua koltxoie-  
tan.

## ARKANGOA TABERNA

## ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

www.guaixe.eus-en  
zerrenda osoa ikusgaiBAZKIDETZA 50€  
948 564 275

## Pilota

## Bosgarrena lortzera

Urrezko puntua lortu zuten Ezkurdiak  
eta Barriolak Irribarriari eta Merino  
I.ari 22 eta 19 irabazi eta gero.  
Txapelketan bizirik diraute eta  
asteartean Irujoren eta Rezustaren  
kontra bosgarren puntua lortu nahi  
dute

## Binakakoa. Saillkapena:

Irujo-Rezusta	8 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoetxea	6 puntu
Artola-Albisu	6 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	5 puntu
Ezkurdia-Barriola	4 puntu
Altuna II.a-Merino II.a	3 puntu
Irribarria-Merino I.a	2 puntu
Berasaluzte II.a-Beroiz	2 puntu

Joseba Ezkurdiak eta Abel Barrio-  
lak Binakako Txapelketako laugar-  
ren puntua lortu zuten igandean  
eta finalerdietara pasatzeko sail-  
katzeko borrokan jarraitzen dute.  
Hori bai, izugarri sufritu behar  
izan zuten Irribarria eta Merino  
I.a irabazteko.Partida erabakita zutela zirui-  
dien, 15 eta 8 aurreratu baitziren  
Ezkurdia eta Barriola. Ezkurdiak  
fin zebilen aurrean eta Irribarria  
eta Merino I.a ezinean zebiltzan.  
Baina abiadura gehiago zuen pilo-  
ta bat aukeratu zutenetik -Ezkur-  
diak eta Barriolak hautatutako-  
egoerari buelta eman zioten. Erri-  
xako atzelaria atzean gailentzen  
hasi zen eta Irribarria aukerak iz-  
aten hasi zen. Horrela, airez 8 tan-  
to lortu zituzten, eta 17 eta 18  
aurreratu ziren Irribarria eta  
Merino. Ezkurdiak eta Barriolak  
sakea berreskuratu zuten eta pilo-  
ta motelago bat aukeratu zuten.  
Izugarri sufritu zuten eta Irriba-  
rriak egindako 3 akats jarraiei

Barriola, Ezkurdiak, Irujo eta Rezusta, Altsasuko partidarako aukeraketan.

esker bukaeran 22 eta 19 irabazi  
zuten eta euren laugarren puntua  
lortu zuten, oraindik ere finaler-  
dietetara sailkatzeko aukerak izatea  
ahalbideratzen diena.Asteburuan jokatuko den Bina-  
kako Txapelketako 10. jardun-  
aldian Ezkurdiak eta Barriolak Iru-  
jo eta Rezusta izanen dituzte aur-  
kari, asteartean, ihauterietan  
murgilduta egongo den Tolosan.  
Irujo eta Rezusta txapelketako  
liderrak dira (8 puntu). Irujok ez  
zuen azken jardunaldian jokatu,  
Xala aritu zen bere ordez baina  
Tolosan Iberokoa aritzea aurrei-  
kusten da. Nahiz eta Irujo eta  
Rezusta faboritoak izan, dena ema-  
tera aterako dira Ezkurdiak eta  
Barriola, aukerak izaten segitze-  
ko bosgarren puntu hori beha-rezkoa dutelako. Partida gogorra  
eta lehiatua espero du katedrak  
Beotibarren.Binakakoa.  
10. jardunaldiaBengoetxea VI.a-Untoria / Irri-  
barria-Merino I (larunbatean,  
17:45ean, Iruñean. ETB1, ntb)  
Berasaluzte II.a-Beroiz / Arto-  
la-Albisu (igandean, 17:00etan,  
Tafallan. ETB1, ntb)  
Olaizola II.a-Urrutikoetxea /  
Altuna II.a-Merino II.a (astele-  
henean, 16:30ean, Tolosan)  
Irujo-Rezusta / Ezkurdiak-  
Barriola (asteartean, 16:30ean,  
Tolosan)

## Igeriketa

Iker Irigoien bigarrena  
Euskal Herriko Txapelketan200 m bularretan bigarrena sailkatu  
zenAsteburuan Euskal Herriko hau-  
ren mailako Neguko Igeriketa  
Txapelketa jokatu zen Tolosako  
Usabal kiroldegian. Gipuzkoa,  
Araba, Nafarroa eta Bizkaiko 300  
igerilari inguru lehiatu ziren ber-  
tan, eta Euskal Herriko lehenen-  
go mailari eustea zuten jokoan.  
Txapelketan parte hartzeko gutxi-  
neko batzuk behar dira, Sakana  
Igerilari Taldeko Iker Irigoien Cla-  
verrek betetzen dituenak, eta tx-  
apelketan parte hartu zuen sakan-  
darrak. Iker hiru probatan aritu  
zen: 400 m estilo, 400 m libre eta  
200 m bular. Oso ongi aritu zen Iker:  
200 m bularretan bigarrena sail-  
katu zen (2:56), 400 m libretan 11.a  
(4:43) eta 400 m estilotan 9.a (5:36).

Iker Irigoien Euskal Herriko txapelketako bigarrena, 200 m bularretan. UTZITAKOIA

## Futbola

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

18. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 1 - CASTILLO TIEBAS 1  
LAGUN ARTEA 2 - BETI CASEDANO 1  
Etxarri eta Castillo Tiebas parez pare aritu  
ziren. Etxarriarrek gol aukera ederrak  
sortu zituzten, baina baloia ez zen  
kontrako atean sartzen. Etxarriak Castillo  
gehien estutzen zuenean gola sartu zuten  
Tiebasekoek, 78. minutuan. Zorionez,  
azken unean berdintzea lortu zuen  
Etxarriak, Josebak sartutako golari esker.  
Bestalde, sufritutako garaipena lortu zuen  
Lagun Arteak Beti Casedanoren kontra.  
Partida oso borrokatua izan zen, hasieratik  
bukaerara arte. Atsedenaldira baino lehen  
Davilak Lagun Artea aurreratu zuen, eta  
bigarren zatia hasi bezain pronto Salgadok  
Lagunen bigarren gola sartu zuen. Betik  
gola sartu zuen, baina lakuntzarrek ongi  
defendatzen jakin zuten eta 3 puntuak  
lortu zituzten. Egun, puntutara berdinduta  
daude Etxarri eta Lagun Artea.

## Saillkapena &gt;&gt;

1. Gares	40 p
4. Etxarri Aranatz	31 p
5. Lagun Artea	31 p

## Asteburuko jardunaldia

BIDEZARRA - ETXARRI ARANATZ  
(Larunbatean, 16:30ean, Noainen)  
BURLADES - LAGUN ARTEA  
(Igandean, 17:45ean, Erripagainan)

## ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

18. JARDUNALDIA

PAMPLONA 4 - ALTSASU 1  
Markagailuak ez du islatzen Pamplonak  
eta Altsasuk izan zuten lehia estua,  
bukaeraino parez pare ibili baitziren bi  
taldeak. Altsasu aurreratu zuen, baina  
atsedenaldia baino lehen berdintzea lortu  
zuen Pamplonak. Pamplona dominatzen  
hasi zen, eta azken bost minutuetan 3 gol  
sartu zituzten Altsasuri.

## Saillkapena &gt;&gt;

1. Lezkairu	44 p
9. Altsasu	20 p

## Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - AMAYA  
(Larunbatean, 12:00etan, Altsasun)

## Mendia

Mendian lehen  
sorospinak egiteko  
ikastaroaOtsailaren 24an, Altsasuko  
InstitutuanSakanako Mankomunitateak men-  
dian lehen sorospinak egiteko ikas-  
taroa antolatu du otsailaren 24an,  
16:00etatik 20:00etara, Altsasuko  
Institutuan. Ikastaroa irakasleei,  
mendizaleei edo interesa duten  
guztiori zabalik dago eta euskaraz  
izanen da, DYA-ko kideek eskainia.  
Landuko diren gaiak: zauriak eta  
hemorragiak; beroak eta hotzak  
eragindako osasun arazoak; zizta-  
dak eta hozkadak; praktikak: zauri-  
tuen lehen laguntza, zaurituen  
salbamendua eta ebakuazioa.

## IZENA EMATEA

Otsailaren 18a baino lehen Mank-  
en (kirolak@sakana-mank.com edo  
948 464 866). Gehienez 30 pertso-  
nendako tokia egongo da eta izena  
ematearen txanda errespetatuko da).

## Motoziklismoa



Fernando Urria supermotardean aritzen da. Goian, txapelkunaren kopa jasotzen. UTZITAKOIA

## Urria, txapelkuna

**Olaztiarra 2015eko Nafarroako eta Zona Norteko Supermotard txapelkuna da**

Fernando Urria moto gidariak primerako denboraldia egin zuen iaz: 2015eko Nafarroako eta Zona Norteko (Euskadi eta Aragoi) Supermotard txapelkuna izan da olaztiarra. Egindako lanaren fruitua ilbeltzaren 23an jaso zuen Urrak, Los Arcos zirkuituan 2015eko motoziklismoko sari banaketa egin baitzen. Fernando Urria bi aldiz igo zen podiumaren gorenera, Nafarroako

txapelkunaren kopa eta Zona Norteko (Euskadi eta Aragoi) txapelkunaren kopa jaso baitzituen.

Iaz jokaturako lasterketa guztiak irabazi zituen olaztiarrak, bat izan ezik; bigarrena izan zen proba horretan. Fruitua jaso du: supermotardeko Zatika Team taldeko kide izatera pasa baita eta Ramos Industrial taldearen babes izango baitu. Horrela egingo dio aurre 2016 denboraldiari. Tartean, Espainiako eta Kataluniako Txapelketa osatu nahi du.

## Atletismoa

## Raul Audikana 11.a Idiazabalgo herri krolean

**555 korrikalarik osatu zuten proba, tartean 20 sakandarrek**

Arrakastatsua izan zen Idiazabalgo herri krolean (10,2 km). Guztira 555 korrikalarik gurutzatu zuten helmuga eta azkarrenak Javier Nagore zizurtarra (31:38) eta Iزارo Rubio ordiziarra (39:13) izan ziren. 20 sakandarrak osatu zuten proba, eta azkarrenak Raul Audikana olaztiarra, 11.a (35:42) eta Marijo Arza altsasuarra, 322.a (46:34) izan ziren.



## Sakandarrak 36. Idiazabalgo krolean:

## Gizonezkoak

1.	Javier Nagore (Zizur.)	31:38
11.	Raul Audikana (Olaz.)	35:42
15.	Jose Luis Beraza (Uhar.)	36:01
24.	Sergio G. de Eulate (Alts.)	36:45
37.	Iban Gonzalez (Urd.)	37:29
51.	Beñat Katarain (Lak.)	38:08
52.	Felix Benjumea (Alts.)	38:09
86.	Mikel Astiz (Arakil.)	39:16
90.	Andoni Azanza (Alts.)	39:24
106.	Egoitz Aldaz (Olaz.)	40:05
209.	Juantxo Azurmendi (Alts.)	43:09
216.	David Oroz (Urd.)	43:33
234.	Santi Agirre (Itur.)	44:09
284.	Carlos Mañeru (Etx.)	45:35
299.	Asier Larrion (Alts.)	46:01
306.	Unai Razkin (Irur.)	46:18
376.	David Trevejo (Olaz.)	48:21
423.	Aingeru Azazeta (Alts.)	49:49

## Emakumeak

322.	Marijo Arza (Alts.)	46:34
422.	Jone Pelaez (Alts.)	49:49
455.	Silvia Perez (Alts.)	51:17
490.	Ixa San Martin (Etx.)	53:23

## Pilota

## Sakandarrak Pilota Berria hautagaitzan

**Nafarroako Euskal Pilota Federazioko Hauteskundeetara aurkeztuko dira**

Otsailaren 17an Nafarroako Euskal Pilota Federazioko Hauteskundeak izanen dira. Aurkeztuko diren hautagaien artean, FNPV/NEPF Hautagaitza-Cambio de Pelota / Pilota Berria izeneko taldea dago eta talde horretan hiru sakandar daude, Arbizuko Aldabide Kirol Elkarteko Lino Arruti eta Josemari Berastegi eta Lakuntza Kirol Elkarteko zuzendari Ander Lopetegi. Haiekin batera, besteak beste, Berriozar klubeko Angel Gamarra, Tuterako Imanol eta San Juaneko Jon Rovira daude. Nafarroako federazioan aldaketa baten beharra ikusten dute.

Bost puntu nagusi ditu euren programak. Lehenik eta behin "pilotaren eta klubaren egoeraren diagnosi bat egitearen beharra" ikusten dute. Bigarrenik, unibertsitateekin hitzarmena sustatu nahi dute, "pilota formazio elementu bezala sartzeko". Hirugarrenik ekonomia, marketing eta komunikazio estrategia bat egitearen beharra ikusten dute "sarre-ribatuen eremua garatu gabe dagoelako". Laugarren puntu klubaren kudeaketarekin lotuta dago. "Federazioak 21.000 euro bideratzen ditu klubak finantza-

tzeko eta gehiago behar da. Gure proiektu izarra klubak bulkatzea da, eremu guztietan. Eta euren finantziarioa antolatzen dituzten ekitaldien arabera izango da" zehaztu dute. Programaren azken puntuan "pilotaren sozializazioa eta eskola promozioa" landu nahi dute. Horretaz gain, emakume pilotariaren figura sustatu nahi dute, emakumezkoen txapelketak sustatuz.

Pilota Berria hautagaitzatik uste dute klub bakoitzak boto bakarra izango balu "hauteskundeak irabaziko genituzkeela". Izan ere, egungo araudiaren arabera klub bakoitzak boto bakarra du, baina klub bakoitzaren lizentzia kopuruaren arabera, gehienez 6 boto izan ditzake klub batek.

Egora ekonomikoaz galdetuta, Pilota Berria taldeak dio pilotara bideratutako aurrekontua 715.000 eurokoa dela "eta horretatik erdia soldatetara bideratua dago". Hautagaitza berriaren iritzi, "soldaten kopurua aurrekontuaren herena ez gaintzea da normalena, horretatik hemengastuak murriztu ahal izanen genituzke". Bukatzeko, egungo Federazioak egindako injerentzia bat salatu zuten. "Federazioko langileria ofizialak Hauteskunde Batzordeari egindako galdera bat erantzun zigun, eta legalki ezin da hori egin".



Pilota Berria taldeko hautagaietako batzuk, Arruti eta Lopetegi tartean. UTZITAKOIA

**BURNI MATERIAL MOTA GUZTIAK, NEURRIRA MOZTU ETA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMATEN DIZUGU!**

**ALDASORO**

678 520 791 • 670 614 877  
Arkinorruti industrialdea, G1. • Olazti

**SAN DONATO HERRI ESKOLA**

**AURREMATRIKULAZIO EPEA: OTSAILAREN 15etik 19ra**

**ITURRI ZAHARREKO UR BERRIA**

**www.etxarrikoeskola.com**  
Teléfono: 948 567003 cpebxarr@educacion.navarra.es  
Utzubar txiki zg 31820 Etxarri Aranatz

## Einnekin bardoak zuzenenan

**Bihar, 18:00etan, Etxarri Aranazko gaztetxean**

**B**ardoak, Nafarroako talde-kako bertsoekimenak, aste-buru honetan bere aurreneko fasea despedituko du. Igan-derako 16 taldeak bi saiotan parte hartu izanen dute eta hurrengo fasera zein 16 talde pasatzen diren jakinen da. Altsasuko Bota Lasai taldeak herriko saioko puntua eskuratu zuen, baina ez Lesakakoa. Azken horiek galduz gero banako berdinketa legoke, eta agian horrela, taldeko multzo buru gisa aurrera egingen lukete.

Etxeko saioa jokatzeko duena Einnekin talde etxarriarra da. Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre, Oier Lakuntza, Joseba Beltza eta Unai Artieda bertsolariak Berriozarren puntua eskuratu zuten eta etxeko saioa irabaztearekin aurrera egingen lukete. Barakinak taldearen kontra neurtuko dira, bihar. Maider Ansa izanen da bertso-merenduko aurkezlea.



### Aurreko saioak

Berriozarko Taupada gaztetxean izan ziren Etxarri Aranazko Einnekin taldekoak ostiralean. Berriozar-Barañaingo Hiru garabardo eta pintxo bat taldearekin bertso-neurketa izan zuten. Saio arina eta umoretsua izan zen, ikuslegoaren algarak piztu zituen bertsoaldi ugariarekin. Etxarriarrek eskuratu zuten puntu irabazlea.

Igandean, berriz, Lesakako Arrano elkartearen aritu ziren bertako Unibertsolariak eta Altsasuko Bota lasai taldeak neurtu ziren. Etxeko taldeak lortu zuen puntu irabazlea.

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Narako oreinak

Nara Japoniako hiri oso ezaguna da, behin Japoniako hiriburua izan zena. Kansai eskualdean kokatua, Japoniako irla handienaren hegoaldean, 350.000 biztanleliko gora bizi daber-tan. Tenplu ugari ditu eta antzinako ohiturak mantentzen saiatzen dira, hori baita turismoa erakartzeko duen gaur egungo aitzakia. Narako tenplu ederrenak 1998. urtean gizon-emakume guztien ondare titulua jaso zuten Unescoren eskutik. Besteak beste, *Hiryū-ji*, *Tyūdai-ji*, *Kyūfuku-ji*, *Santuario Kasuga*, *Gangyū-ji*, *Yakushi-ji*, *Tyūshūday-ji* eta *Heijū-ko* jauregiko aztarnak ere. Baina Nara famatua egin da, batez ere, tenpluen inguruan oreinak libre bizi direlako, turistaren artean korrika. Sika familiako mila oreinetik gora, babestuta hazi eta bizi dira tenpluen inguruan, eta honela, jendea otoitz egitera erakartzea lortzen dute, edo gutxienez, txanpon batzuk saskian uztera.

Negoio ederra egin dute beraiekin. Jakina da Japonian edozein aitzakia aproposa bilakatzen dela kontsumismoa bultzatzeko. Oreinen marrazkia duen arropa, oreinen itxura duten kutunak eta apaingarriak, jakiak, liburuak, kapelak... denetarik aurkitu daiteke Naran. Gainera, bertan zaudela, oreinei jaten emateko litxarriak ere saltzen dituzte, normalean gailetatxo gaziak. Turistak oreinak erakarri eta ukitu ditzake txanpon batzuen truke, parke tematiko batean bezala. Narako biztanleek dituzten tradizioen artean, 300 urtez mantendu dena, Shika no Tsunokiri dugu: orein arren adarrak moztea, alegia. Oreinen ongizate mantentzeko sortuz tenplu batek egiten du, udazkena iristean. Oreinen ugaltzeko denboraldian beroansartu eta arriskutsu bihurtu daitezke. Udazkena da adarrak gogortu eta zorrozten diren denboraldia, eta orein arrek borroka egiteko erabiltzen dituzte. Gainera, erakuntzen kontraigurtziz, zorrozte eta



garbitu nahian, txikizio ugari sortzea ere arrunta zen.

Udaberrian, adarrak galdu egiten dituzte modu naturalez -arrebakarrrik-, eta udazkenean bertan gatibu bizi diren orein arrei adarrak moztzen dizkiete. Ixiltasun eta errespetu handiz monjeek egiten duten erri-toa da Shika no Tsunokiri. Hasieran, kaleak itxi eta bertan egiten zen, publikorik gabe. Baina jendeak, ikusteko gura ezin asetuz, etxeko teila-tuetara ere igotzen zen eta egoera arriskutsuak sortzen ziren.

Gaur egun zona pribatu batean egiten da, ia osotasunean, baina egun zehatz batean hiru oreinen adarren mozketak publikoarekin egiten da, jakinmina, errespetua eta tradizioaren oreka mantenduz. Adarrak moztu ondoren, tenpluko Kami edo jainkoari eskaintzen zaizkio, salmentan jarri aurretik. Oreinei etekina ateratzeko beste modu bat.

## ALTSASUKO KORAZONISTAK

### HAUR HEZKUNTZA

**1-3 urte:**  
Jardunaldi malgua  
(9:00 eta 16:00 ordu bitarteko jardunaldiaren aukera)

**3-6 urte:**  
Jardunaldi jarraia (8:55etatik-14:05era)

**JANGELA**  
**ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**  
(15:30 etatik-17:00etara)

### Aurreinskripzioa Otsailaren 15etik 19ra

### LEHEN HEZKUNTZA

Jardunaldi jarraia  
Arratsalde Eskolaz kanpoko ekintzak  
Euskara eta Ingelezeran murgiltze osoa.

### ELKARLANA

### SORMENA

### KALITATEA

### KONPROMEZUA

### GERTUTASUNA

HONAKO HEZKUNTZA HAU ESKAINTZEN DUGU

### PARTE-HARTZAILEA

**AMULTSUA** **SOLIDARIOA**

**IREKIA ETA MALGUA**

INTEGRALA ETA INTEGRATZAILEA

**EKOLOGIKOA**

**GOXOA ETA GERTUKOA**



## Argazkiak, Urbasako neguaz gozatzeko aitzakia

**Altsasuko Mendigoizaleak taldeak ekimen ez lehiakor batekin gonbite hori luzatu du**

**N**egua, hitzordua. Eta gaia. Bitartekoak: argazki maki-naeta ez galtzeko balio duten mapak, GPSak, iparrorrazak eta bestelakoak. Elementu horiekin guztiekin Urbasaren orografiaren txoko berezietagordetakoez gozatzeko gonbitea luzatu du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. Bigarren aldia da ekimen ez lehiakor hori martxan jartzen dutena.

Urbasako “paraje zoragarri, baina tarteka nahasiei, non bidea galtzea erraza izan daitekeen, argazkiak ateratzea” proposatzen du taldeak, lokalizazioarako egungo baliabideak erabiliz beti ere. Argazki ekimenaren beste helburuetako bat “egungo teknologiaz gure inguruaz gozatzeko” baita.

### Araukak

Altsasuko Mendigoizaleen argazki ekimenean parte hartu nahi duenak [www.altsasukomendigoizaleak.com](http://www.altsasukomendigoizaleak.com) web orrian izena eman beharko du. Ordutik aurrera argazkiak ateratzeko aukera izanen dute parte-hartzaileek. Epea otsailaren 26an despedituko da. Argazkilari bakoitzak 6 argazki aurkeztu beharko ditu, .jpg formatuan eta erreso-



### Gonbitea

42 50 09 37N-2 08 25 37W  
DATUM (WGS 84) geografia-puntuan dagoenari argazkia ateratzera gonbidatu du taldeak, “derrigorrezkoa ez bada ere”.

luzio orijinalen. Lanak Altsasukomendigoizaleak@gmail.com e-postara bidali beharko dira ([www.wetransfer.com](http://www.wetransfer.com) bidez bidaltzea aholkatu dute). Argazki bakoitzak izenburua izan beharko du, baita atera den tokiaren izena, toponimoa. Bidalketarekin batera argazkilaria zein den adierazi beharko da.

Jasotako argazki guztiak Aki-lasen bordan (Eskizako sarroia, Otsoportilloko bidean 5. km) proiektatuko dira, martxoaren 12an, 16:30ean. Bidea elurratik itxita balego, kanpinean. Argazki emanaldiaren ondoren auzatea eta parte-hartzaile guztiendako txaloak izanen dira.

## Etxarri Aranazko abesbatza La Pamplonesa bandarekin batera

**Igandean, 19:00etan, Iruñeko Gaiarre antzokian euskal kantekin osatutako erreperorioa eskainiko dute**

**I**gandea iritsi eta kontzertu eder bat eskaintzeko “irrikitan” dardelagaztigatu digu Juana Jakak, Etxarri Aranazko abesbatzako presidenteak. Azaldu digunez, “duela hilabete batzuk La pamplonesa Bandarekin harremanetan jarri zen eta elkarrekin kontzertu bat emateko prest ote geunden galdetu zigun”. Baiezkoa eman zuten, “oso kontzertu polita eta zurragarria delako. Tenorrek eta sopranoek oso tesitura altuak ditugu. Beste ahotsak ere gauza politak dituzte. Nik uste kontzertu deigarria dela”. Jakak aitortu digunez, orkestra edo bandarekin kantatzea tokatzen zaie nean “izugarri disfrutatzen da”.

Jakak azaldu digunez, “guk gure kontzertu entseatu dugu. Ilbeltzean hasi ginen emanaldia prestatzen. Eta aste honetan La pamplonesa Bandarekin bi entsegu egin ditugu Iruñean, haien egoitzan”. Jesus Garisoain izanen da banda eta abesbatza zuzenduko dituenak. Garisoain eta abesbatzako zuzendari Alicia Armendarizen artean zehaztu dute erreperorioa, euskal kanten aukeraketa dena.



### Gonbitearen zergatiaz

Etxarriko abesbatza La pamplonesa Bandarekin aritzen den aurreneko aldia da etzikoa. Baina aurretik abesbatza banda eta orkestrekin aritu da: Sakanako Haize Berriak bandarekin behin baino gehiagotan, Pablo Sarasate orkestrarekin (Nafarroako Orkestra Sinfonikoa egun) eta Euskadiko orkestrarekin ere. Halako gonbiteak jasotzeko arrazoiez galdetuta, Jakak hiru arrazoi aipatu ditu. Lehenik, abesbatzak duen potentzia; “edozein abesbatzak ezin du guk ematen duguna eman. Normalean halako kontzertuetarako orfeoia aritzen dira. Lagun asko behar dira halako potentzia emateko. Orkestra baten aurrean

### Erreperorioa

Koral bat gara	Xabier Sarasola (mus.) Iñaki Urkizu (mold.)
Kantaldia	Iñaki Urkizu
Txoria txori	Mikel Laboa (mus.) Iñaki Urkizu (mold.)
Eusko irudiak	Jesus Guridi
Gernika	Pablo Sorozabal

edozein abesbatzak ezin du erantzunik eman”. Bestetik, abesbatzak duen maila: “joan den urtean Ejea de los Caballerosko lehiaketa irabazi genuen”. Eta, azken arrazoiak: “euskal kantak abesteko erraztasuna dugun abesbatza bat gara”.

Emanaldi bera Etxarri aldean eskaintzea nahiko lukete, baina “La pamplonesa mugitzeko diru asko behar da”. Lekua ere eragozpena da, areto handia behar baita.

Matrikulazio epea: otsailaren 15etik 19ra

# ikastolan

gudenok gara

**ANDRA MARI IKASTOLA**

etxarri@ikastola.net  
948 46 02 86 · ETXARRI ARANATZ  
948 46 10 77 · ARBIZU

---

**INIGO ARITZA IKASTOLA**

ikastola@inigoaritz.com  
948 56 29 51 · ALTSASU

---

**TXIOKA**  
haur ikastola

txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com  
948 37 30 23 · ALTSASU

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 7%	euria: 13%	euria: 90%	euria: 28%	euria: 94%	euria: 96%	euria: 87%
Min: 1 Max: 11	Min: 5 Max: 12	Min: 4 Max: 9	Min: 6 Max: 12	Min: 6 Max: 9	Min: 3 Max: 8	Min: 4 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	13	0.5	16.8
Etxarri A.	12.4	0.3	20.5
Altsasu	11.5	0	25.3
Aralar	12.2	-1.5	28.4
Urbasa	8	3.5	7.5

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
8	15	22	1

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide sarituak

- 1.- Encarnacion Arrese Ezker (Olazti)
- 2.- Alberto Urkia Mendinueta (Iturmendi)
- 3.- Karmele Anso Eguren (Bakaiku)
- 4.- Ana Kaiueta Iturriza (Bakaiku)

# >> 11 galdera

**Ariane, Leire, Irati, Ariane, Adriana, Garazi eta Sonia**

Etxarriko kintoak

Testua: Maider Betelu Ganboa



Altsasu

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

**1. Zenbat kinto zarete aurten Etxarrin?**  
Guztira 23. 10 mutil eta 13 neska. Gu –Ariane Huizi, Ariane Atxa, Leire Ijurko, Irati Lasa, Adriana Ansotegi, Garazi Jaka eta Sonia Morentin– eta Iñigo Maiza, Xabi Markotegi, Andrea Ansotegi, Ane Leza, Garazi Artieda, Ane Eskala, Aitor Maiz, Izar Parot, Aaron Arbizu, Alex Neira, Alex Unzilla, Miriam Agirre, Olatz Agirre, Adrian Joao, Israel eta Garat Flores.

**2. Noiztik hasten zarete biltzen eta antolatzen?**  
Ez ditugu soilik kintoen festak ospatzen. Abenduan elkartzen gara, Olentzero prestatzeko. Olentzeroren karroza prestatu genuen eta egunean bertan Olentzeroren ondoan joaten gara, suziak eramaten eta antolakuntzan laguntzen. Gabon zahar egunean eskean ateraginen. Izan ere, dirua atera behar dugu kintoen bazkari-afariak ordaintzeko eta astearte inauterietan txarangaren gastuak ordaintzeko.

**3. Astelehen eta asteartean ospatuko dituzue kintoak.**  
Astelehenetan kinto zaharrek bilduko gara afaltzera. Gero autobusa hartuko dugu Tolosako inauterietara joateko, gaupasa egitera. Kinto zaharrekin batera goaz, eta badago urtero Tolosara etortzera animatzen den “beti kinto”-ren bat. Tolosatik buelta egin ondoren, astearte goizean, kaxeraz jantzi eta Etxarriko etxeetan dirua eskatuko dugu,

txarangak lagunduta. Eta ondoren bazkaltzera bilduko gara kinto zaharrek.

**4. Kintoen ospakizunez aparte asteartean inauteriak dira ere, ez?**  
Bai. Astearteyotean etxarriarrak mozzoratzen dira baina gu ez, gu kinto ospakizunetangaude, kaxeraz jantzita. Astearte arratsaldean txarangarekin kalejira egingo dugu eta gero parranda.

**5. Etxarrin kintoek txano bereziak eramaten dituzue, txano konikoak, joaldunen antzekoak. Prestatu al dituzue?**  
Txano horiek neskek eta mutilek eramaten ditugu. Baina oraindik ez ditugu prestatu! (kar kar). Azken egunotan prestatu behar dugu, azken orduan. Urtero egiten dira txano hauek, kinto bakoitzak berea.

**6. Kintoak Etxarriko inauterien ospakizunetan buru-belarri ibiltzen zarete, ezta?**  
Bai, kintoek iyoteetan parte hartzeko konpromisoa dugu. Astearteyote aurreko azken hiru ostegunetan Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde ospatu ditugu. Txarraz mozzoratzen gara kintoak, neskak eta mutilak. Gizakunden mutilak jendea izutzen eta berotzen ibiltzen dira eta neskak puskak biltzen; Andrekunden, alderantziz, eta Garikunden guztiak elkarrekin. Aurten ongi doaz iyoteak, jende asko atera da.  
Igandean hurrek zalduniyote ospatuko dute, mozzorrotu egi-

ten dira eta txokolate jatea egoten da. Udalak prestatzen du ekitaldia. Eta astearteyotean bakoitz nahi duen bezala mozzoratzen da, gu izan ezik.

**7. Etxarriko aurtengo erromerietan Dantzakia dantzatzea tokatzen zaizue ere.**  
Bai, San Kirikon, San Adrianen eta Ama Birjina egunean dantzatuko dugu Dantzakia. Garbiñe Karasatorrek erakusten digu; ez da oso konplikatua.

**8. Beste zerbait antolatzea tokatzen zaizue?**  
Etxarriko udako festetako osteguna Kintoen Eguna izaten da eta egun horretarako egitaraua prestatu behar dugu, txaranga eta beste. Bazkaria ere izaten dugu.

**9. Eskean zaudetenean etxarriarrak eskuzabalak dira zuekin?**  
Orokorrean bai, baina denetarik dago.

**10. Ikasleak zarete gehienak. Egunotan azterketak izaten dituzue?**  
Egunotan ez, baina bueltan bai. Astelehenetik asteazkenera festa dugu Altsasuko institutuan, inauteriak direlako. Aste horretan ez dugu azterketarik, baina otsailaren 15etik aurrera etorriko dira azterketa guztiak.

**11. Zuen festak ospatzeko irrikitan egongo zarete. Ongi pasa!**  
Bai, gogotsu gaude. Milesker!